

Otxandioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana

Udaletxeko logoa



Koordinatzailea:



Aurkibidea

I. KAPITULUA	1
Aurkezpena	2
Arauen eta eskumenen testuingurua	4
Otxandioko Berdintasunerako politiken ibilbidea	8
Planaren diseinurako burututako lan prozesua	9
 II. KAPITULUA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA – SARRERA	 12
Sarrera	13
Helburuak eta ekintzak	16
Helburuen matrizea	27
 III. KAPITULUA - BERDINTASUN GAIETAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK	 30
Emakumeen ahalduntze eta balioen aldaketa	
Sarrera	32
Helburuak eta ekintzak	34
Helburuen matrizea	48
Antolaketa social erantzunkidea	
Sarrera	52
Helburuak eta ekintzak	53
Helburuen matrizea	62
Emakumeen aurkako indarkeria	
Sarrera	65
Helburuak eta ekintzak	67
Helburuen matrizea	72
 IV. KAPITULUA – KUDEAKETA EREDUA	 73
Kudeaketa eredua	74
Jarraipenerako fitxak	78

I. Kapitulu

Aurkezpena

Arauen eta eskumenen testuingurua

Otxandioko Berdintasunerako politiken ibilbidea

Planaren diseinurako burututako lan prozesua

Aurkezpena

Otxandioko Udalaren Berdintasunerako I. Planak datozen 4 urteetan emakume eta gizonen berdintasunerako udal politiken marko estrategikoa zehazten du. Era berean Udalak genero berdintasunerako politikak garatzeko duen borondatearen emaitza zuzena da.

Mugimendu feministaren borrokari esker emakumeen eskubideen alde eman diren pausoak garrantzitsuak izan badira ere, gaur egun emakumeen kontrako zapalkuntzak gizarte kapitalistaren ezaugarri estruktural bat izaten jarraitzen du. Bizi dugun errealitatean emakumeen kontrako indarkeri modu desberdinak indarrean dira, lan merkatuan eta bizitza publikoan emakume eta gizonen parte hartzea desorekatua izaten jarraitzen du, emakumeek beraien gorputzaren gaineko erabakiak hartzerakoan askatasun falta bizi dute oraindik eta bizitzaren zaintzak kasu gehienetan emakumeen ardura izateaz gain sozialki eta ekonomikoki baloratu gabeko lan bat izaten jarraitzen du.

Egoera honen aurrean – eta tokiko administrazioek herritarrenganako hurbiltasunari dagokionez eskaintzen dituzten aukerak kontutan harturik –, Otxandioko Udalak gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko politika koherente eta eraginkorrak burutu ahal izateko, tokiko errealitatek abiatutako udal esparru desberdinak barneratuko dituen plangintza baten aldeko apustua egin du. Zentzu honetan, Planaren erabilgarritasuna bermatzeko herriko errealitatera egokitzen diren helburuak finkatu dira, diseinatutako ekintzek ere irizpide berbera jarraitzen dutelarik. Era berean, dokumentu hau eragile ezberdinen iritziz eta gomendioetan oinarritzen da, datozen lau urteetako berdintasun politiken diseinua herriko eta udaleko agenteekin adostea ezinbestekoa baita.

Plan honen diseinuak krisi ekonomikoaren areagotzearekin topo egin du. Testuinguru honetan gobernuak inposatu dituzten neurriak eta aurrekontuen murrizketek herritarren bizi kalitate eta baldintzetan ondorio larriak eragin dituzte. Hau dela eta, herritar asko ezegonkortasun-egoeretatik bazterketa-egoeretara igarotzen ari dira. Indartzen ari den garapen eredu kapitalista eta heteropatriarkalaren aurrean Otxandioko Udalak, Herri Ola prozesuaren bidez, bizitza kalitatea helburu duen garapen eredu berri baterantz hasi du bidea. Herritarrekin batera jorratzen ari den bide honetan kokatzen da Berdintasunerako I. Udal Plana.

Planaren egitura eta ardatzak

Plan honen bidez lantzen diren edukiak eta definitzen diren helburu eta ekintzak aztertzerakoan Otxandio bezalako herri txiki baten testuinguruan kokatu behar ditugu. Otxandioko udalerriak 12,43 km²-ko hedadura du eta 1280 biztanle inguru bizi dira bertan. Kokapen geografikoari dagokionez Bizkaiko Lurralde Historikoaren hegoaldean dago, Arabarekin muga egiten duelarik (Zuiako Koadrilarekin). Gorbeiako mendiek eta Urkiolako Parke Naturalak osatzen dituen mendiek inguratzen ditu. Hurbilen dituen Bizkaiko herrietara irizteko mendiko bi portu igaro behar dira: Durangaldera irizteko Urkiolako portua eta Dimara irizteko Dimako portua. Beraz, nahiz eta Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokion herri bat izan, Arabako herri eta hiriburua hurbilago ditu. Egoera geografiko honek berezko izaera emateaz gain, inguruko herriei eta eskualdeekin dituen harremanak baldintzatzen ditu.

Landa ingurunean kokaturik egonda ere, Otxandio merkataritzan eta burdingintzan oinarritutako herri bat izan da sortu zenetik. Merkataritzak eta industriak garai historikoen arabera gorabeherak izan baditu ere, gaur egun industria sektorean pisua nabaria da. Adibidez, diru sarreraren %65 industria tasatik dator¹ eta Eustaten datuen arabera industria sektoreak Barneko Erantzi Gordinaren %60,80 suposatzen du².

Planaren egitura eta ardatzei dagokionez, 4/2005 Legeak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako dioena jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroak kontutan hartu dira. Zentzu honetan EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planak ezartzen dituen gida lerroak aintzat harturik hurrengo atal nagusien arabera egituratu da Berdintasunerako Udal Plana:

Lehen atala: bertan, aurkezpen honetaz gain, tokiko berdintasunerako politikak gidatzen dituen arau eta eskumenen testuingurua, Otxandioko Berdintasunerako politiken ibilbidea eta Planaren diseinurako egindako lan prozesuaren deskribapena barneratzen dira.

Bigarren atala - Emakumeen eta Gizonen Aldeko Gobernantza: atal honetan Otxandioko Udalak bultzatzen duen gobernatzeko ereduan gizon eta emakumeen berdintasuna txertatzeko betebeharreko baldintzak eta hartuko diren neurriak lantzen dira.

Hirugarren atala – Esku-hartzeko ardatzak: atal honetan hurrengoko hiru esku-hartze ardatzen inguruan adostutako helburuak eta hauek lortzeko emango diren pausoak deskribatzen dira:

- Emakumeen ahalduntzea eta balioen aldaketa.
- Antolaketa sozial erantzunkidea.
- Emakumeen aurkako indarkeria.

Laugarren atala: kudeaketa ereduaren deskribapena. Hau da, Planaren inplementaziorako lan eta koordinazio egiturak eta adostutako helburuen lorpen maila neurtzeko ebaluazio sistema aurkeztuko dira.

¹ Datu iturriak: Udal web orrialdea.

² Udalmap 2012/11/26.

Arauen eta eskumenen testuingurua

Toki Administrazioari dagokionez, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak (18) 28. artikuluan (19) ezartzen duenez, berez beste herri-administrazio batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jarduera osagarri batzuk egin ditzakete, bereziki, emakumearen sustapenari buruzkoak, besteak beste. Eskumen banaketa honetatik abiatuta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen I. Tituluan, “Eskumenak eta Eginkizunak” izenburuko I. Ataleko 7.artikuluan, tokiko administrazioaren eginkizunak definitzen ditu:

7. artikulua.– Tokiko administrazioaren eginkizunak.

1.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.

b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.

c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurilaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.

d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.

e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.

f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.

g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotoz kentzeko neurriak hartzea.

m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

2.– Toki-administrazioek aurreko paragrafoan aipatzen diren eginkizunak benetan bete ditzaten laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetzak teknikoa eskainiko die, eta foru-administrazioek ere beharrezkoak diren sustapen-neurriak hartuko dituzte.

Era berean, 4/2005 Legearen I. Tituluan, "Euskal Herri Administrazioen arteko Erakunde Antolaketa eta Koordinazioa" izenburuko II. Kapituluko I. Atalaren 10. artikuluan, toki administrazioek berdintasunaren alorrean bete beharreko funtzioak zehazten dira:

10. artikulua.– Foru- eta toki-administrazioak.

1.– Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.

2.– Erakunde, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez ondoko eginkizunak beteko dituzte:

a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.

b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d) Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendeandakoen gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.

f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitze eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.

g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezen proposamenak eta sustapen-lana egitea.

h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrianak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea.

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.

l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

Estatuko, Europako eta Nazioarteko Esparrua

Plan hau oinarritzen den testuinguru hurbilena EAE izanda ere, kontutan hartu behar da testuinguru honetan garatu diren araudi eta berdintasunerako politikek goi mailako beste administrazio eta erakundeek egindako bidea dutela erreferentzia giza. Hala nola Estatuko, Europako eta nazioarteko legeria.

Estatu mailan, gizon eta emakumeen berdintasun politiken inguruan azken hamarkadan onartu diren lege nagusiak ondorengo hauek dira:

- Urriaren 13ko 30/2003 Legea, Gobernuak egiten dituen arau-xedapenetan genero-eraginaren balioespena jasotzeko neurriei buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko, administrazio publiko eta enpresak barnean hartzen dituenak.

Europako Batasunaren esparruan, berdintasunaren inguruko politikak hasiera batean bereziki enplegu eta lan-merkatuaren esparruari lotuta zeuden zuzentarauak onartzera bideratzen ziren. 1997an Amsterdamgo Ituna onartu eta gero, berdintasunaren alorreko lana indartu egin zen, erkidegoaren mailako zuzenbidezko arauak eta ekintza-planek ondorengo esparruak barneratzen hasi direlarik: ordainketa-berdintasuna, berdintasuna hezkuntzan, erabakitze espazioetako parekotasuna eta Europako Egiturazko Funtzak eskuratzeko aukera berdintasunaren sustapena.

Gaur egun, Europako Batasuna *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategia* garatzen ari da. Honek berdintasun alorrean Europako Batzordearen 2010-2015 aldirako lan-programa osatzen du. Estrategia honen bidez, Europako Batzordeak konpromisoa hartu du bultzatzen dituen politika guztietan genero-berdintasuna sustatzeko, lehentasunezko ondorengo gai hauetan oinarrituta:

- Independentzia ekonomiko baliokidea emakume eta gizonentzat.
- Ordainketa bera, balio bera duen lana eginez gero.
- Berdintasuna erabakiak hartzeko orduan.
- Duintasuna, osotasuna eta genero-indarkeriaren amaiera.
- Genero-berdintasuna sustatzea EBtik kanpo.
- Gai horizontalak (sexuei atxikitutako rolak, legeria eta gobernantzarako tresnak).

Azkenik, **nazioarteko esparruan**, berdintasunaren aldeko politiken arau-ingurunea NBEk onartutako adierazpen eta erabakietan kokatuta dago. Nazio Batuen Gutuna eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eman eta gero, erakundeak hainbat erabaki hartu ditu. Hauen bidez, estatu kideak premiatzen ditu berdintasuna eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezaren printzipioak berma ditzaten. Jarraian, Estatu espainiarreko esparruan barne dauden botere publikoentzat erreferentziakoak direnak jaso ditugu:

- Emakumeen eskubide politikoei buruzko Konbentzioa. 1954ko uztailaren 7an sartu zen indarrean. Estatu espainiarrak 1974ko apirilaren 14an sinatu zuen .
- Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko konbentzioa (1979ko abenduaren 18an berretsi eta 1981eko irailaren 3an indarrean sartu zen). Estatu espainiarrak Konbentzioa 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen. Konbentzioaren Hautazko Protokoloa 1999ko urriaren 6an onartua izan zen.
- Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena (1993ko abenduaren 20an onartua).
- Beijing-go Adierazpena eta Emakumeei buruzko Nazio Batuen IV. Munduko Konferentziako Ekintza Plataforma (Beijing, 1995), eta gerora egindako bilkurak: Beijing+5 (New York, 2000), Beijing+10 (New York, 2005), eta Beijing+15 (New York 2010).

Otxandioko Berdintasunerako politiken ibilbidea

Otxandioko Udalak berdintasunerako politikak udal mailan era iraunkor eta eraginkor batean barneratzeko emandako lehen pausoa 2009an herriko emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa egiteko ikerketa proiektu bat martxan jartzea izan zen. Proiektu honen helburua, alde batetik, bai herri mailan eta bai Udal mailan gizonen eta emakumeen egoera aztertzea zen. Zentzu honetan, genero harremanak eta gizon-emakumeen bizi baldintzak aztertu ondoren herri mailan zeuden behar eta desorekak identifikatzen hasteko lehen urratsak eman ziren. Aldi berean, udal mailan berdintasunerako politikak martxan jartzeko zeuden hutsuneak eta aukerak aztergai izan ziren.

Bestalde, egindako ikerketaren helburua lortutako emaitzak kontutan harturik gizon eta emakumeen berdintasunerako udal planaren oinarriak finkatzea zen. Hau da, genero ikuspuntua Udal politiketan barneratzeko beharrezkoa ikusten zen udal plangintza batentzako oinarriak definitzen hastea.

Proiektu honekin martxan jarri zen prozesuan zehar bildutako informazioa eta egindako analisien emaitza nagusiak Berdintasun Diagnostika izendaturiko txostenean jasotzen dira.

Diagnostikoa egin ondoren agerian geratu da udal maila gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko politika koherente eta eraginkorrak burutu ahal izateko tokiko behar eta errealitatek abiatutako udal esparru desberdinak barneratuko dituen plangintza bat funtsezkoa dela. Helburu hau lortzeko 2012an Berdintasunerako I. Udal Planaren diseinu prozesuari ekin zion Udalak herritarren, eta zehazki herriko emakumeen, parte-hartzearekin batera. Prozesu honen emaitzak dokumentu honetan jasotzen dira.

Lehen urrats hauekin batera Udal mailan berdintasunerako politikak bultzatu ahal izateko beharrezkoa den talde sustatzailea udal egituren barnean txertatzeko asmoarekin, Giza Eskubideen batzordeak bere gain hartu du ardura hori. Batzordearen lehendakaria den zinegotziari dagokio berdintasunerako udal politiken eta osatua dagoen gizon eta emakumeen berdintasunerako lan taldearen gidaritza. Zentzu honetan, planaren diseinurako zabaldu den prozesuan Batzorde honen lana eta inplikazio maila funtsezkoa izan da.

Azkenik, aipatu beharra dago Udaletxeak, Giza Eskubideen Batzordearen eskutik, berdintasunerako politiken inguruan ekintza puntualak burutu dituela. Hauek, Azaroak 25 – Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako nazioarteko Eguna – kanpainaren barne kokatu dira batez ere. Adibidez, emakumeenganako indarkeriaren kontrako adierazpen instituzionalaren onarpena Udalbatzarrean eta herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio ekintzak.

Planaren diseinurako burututako lan prozesua

Otxandioko Udalak demokrazia parte-hartzailearen eredua Udal erabakietan barneratzeko helburuarekin bultzatu dituen ekimenak kontutan harturik³, planaren diseinurako burutu den lan prozesua metodologia parte-hartzailean oinarritu da – zehazki, Ikerketa eta Ekintza Parte-hartzailearen metodologian –. Metodologia honen bidez errealitatearen ezagutza sakontzeaz gain, prozesu parte-hartzaile baten murgilduz gizartearen mobilizazioa lortzea planteatzen da. Zentzu honetan, etorkizunean jarraipena izango duten lan-prozesuak abian jartzea izan da herritarrei zuzenduriko ekintzen helburuetariko bat. Hau da, Udal berdintasunerako politiken garapenerako herritarren parte-hartzea bermatuko duten lan dinamika eta egiturak ezartzen eta definitzen hastea.

Bestalde, Udal berdintasunerako planaren arrakasta eta erabilgarritasuna bermatzeko, herritarren parte-hartzeaz gain Udalaren ezaugarri, aukerak eta dituen baliabideak kontutan hartzea ezinbestekoa da. Zentzu honetan, metodologia parte-hartzailean oinarrituta baita ere, Udalaren errealitatea aztertzeke, lehentasunak definitzen hasteko eta berdintasunerako politiken garapenerako beharrezkoak diren lan dinamika eta egiturak lantzen hasteko udal langileei eta zinegotziei zuzenduriko ekintzak burutu dira.

Planaren diseinurako martxan jarri den lan prozesuan eragile desberdinen partaidetza sustatzerakoan pertsonen denboraren erabilera eta prestasuna errespetatu dira. Zentzu honetan, alde batetik, emakumeek beraien bizitza sozialean erabiltzen dituzten dinamika eta guneak kontutan hartuta, antolatu diren ekintzak dinamika hauetara moldatzeko ahaleginak egin dira. Bestalde, lan-espazioei dagokionez, lehentasuna eman zaio lehendik martxan dauden egiturak erabiltzeari. Dena den, beharrezkoa eta egokitzat jo denean, espazio berriak sortu dira etorkizunean parte-hartze esparru egonkorak eratzeke beharrezkoak diren lan dinamika finkatzen hasteko asmoarekin.

Laburbilduz, honako hauek izan dira Planaren diseinurako burutu diren ekintzak.

- Udaletxeko zinegotzi guztiei zuzenduriko bi orduko bi lan saio. Hauetan, berdintasunerako politiken inguruko oinarritzko edukiak lantzeaz gain, Udalean martxan dauden proiektu eta politikak kontutan harturik berdintasunerako politikak bultzatzeko aukerak eta ekintzak identifikatu dira.
- Udaletxeko langileei zuzenduriko bi orduko lan saio bat. Maila teknikoan berdintasunerako politika udal baten egunerokotasunean barneratzeak suposatzen duena kontutan harturik, Otxandioko Udalean dauden aukerak eta zailtasunak identifikatu dira.

³ Hauen artean adibide adierazgarriena hurrengo kapituluaz azalduko den Herri Ola prozesua litzateke.

- Udal Batzorde bakoitza osatzen dutenekin lan saio bat (guztira 7 lan saio). Hauetan Udalaren lan esparru bakoitzean berdintasunerako politikak bultzatzeko helburu eta ekintzak aztertu dira.
- Giza Eskubideen Batzordeak Planaren diseinuaren gidaritzaren ardura izan duenez, Batzordearen lehendakaria den zinegotziarekin koordinazioa etengabekoa izan da. Prozesuaren faseen beharren arabera, koordinazio hau Batzordekide guztietara zabaldu da. Batzordearen lehendakariarekin guztira 8 lan saio burutu dira eta Batzordekide guztiekin 5.
- Herritarrei, eta zehazki herriko emakumeei, zuzenduriko lan saioak. Prozesuaren aurkezpena kontutan hartu gabe, guztira 5 saio egin dira. Hauek, herriaren errealitatea eta Udalaren lehentasunak kontutan harturik, emakumeen adina, jatorri kulturala eta landu nahi ziren gaien arabera sailkatu dira. Ondoren zehazten diren gaiez gain indarkeria matxista, gizarte antolaketa erantzunkidea eta emakumeen ahalduntzea zeharka landu dira saio guztietan. Laburbilduz, ondorengo hauek dira burutu diren saioak eta landu diren gaiak:
 - Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesuaren azalpena. Bertan 23 herritar parte hartu dute (21 emakume eta 2 gizon).
 - Emakume nagusiei zuzenduriko lan saioa (9 emakumek parte hartu dute). Saio honetan emakumek bizi izan dituzten garai sozio-politiko desberdinetan nagusi ziren genero rolen beraien eguneroko bizitzan izan duten eragina aztertu da. Baita gaur egun emakume nagusi bezala bizi duten egoera ere.
 - Beste jatorri kultural eta herrialdeetatik etorritako emakumeak (5 emakume saharauiak). Saio honetan, beste kultura eta herrialde bateko emakumeak izanda, Otxandio bezalako herri batean bizi duten egoera aztertu da. Baita beraien egoeraren aurrean dituzten eskaerak ere.
 - Umeen zaintzaren ardura duten emakumeak (4 emakume). Umeen hezkuntzan genero rol eta ereduaren eragina aztertu ondoren Otxandio bezalako herri batean hauek lantzeko burutu daitezkeen ekintzak eta adostu beharreko estrategiak eztabaidatu dira.
 - Emakume helduak (18 emakume). Eztabaida hiru bloke nagusien arabera dinamizatu da: emakumeen parte-hartze sozio politikoa, emakumeak eta lan merkatua eta genero rolen eragina eguneroko bizitzan.
 - Emakume gazteak (9 emakume). Hurrengo gaien arabera dinamizatu da eztabaida: gazteek bizi duten egunerokotasunean indarrean dauden indarkeri era desberdinak, genero rol eta ereduaren eragina beraien bizitzetan eta rol eta genero ereduaren erreprodukzioa Otxandioko Gaztetxean.

- Berdintasunerako Udal planaren lehen zirriborroaren Kontraste saio bat udal zinegotzi eta langileekin.
- Herritarrei, eta zehazki prozesuan parte hartu duten emakumeei, zuzenduriko lehen zirriborroaren kontraste saio bat.
- Adostutako Planaren aurkezpen publikoa herri mailan.

II. Kapitulu

Emakume eta gizonen berdintasunerako gobernantza –
Sarrera

Helburuak eta ekintzak
Helburuen matrizea

Gobernantzari buruz ari garenean gobernatzeko era berriei buruz ari gara, hau da, erabakiak hartzerakoan eta ondoren hauek inplementatzerakoan martxan jartzen diren prozesuak nolakoak izango diren adosten ari gara. Gaur egun bizi dugun krisi egoeraren larriagotzeak egitura politikoak zalantzan jarri ditu. Ondorioz, ordezkaritza politikoaren krisiaren existentziaren inguruko eztabaidak areagotzen ari dira. Zentzu honetan, gure bizitzaren egunerokotasunean eragin zuzena duten erabakietan parte hartzeko dugun aukera gero eta mugatuagoa dela salatzen da. Aldi berean, hiritarrak alderdi politiko eta sindikatuak defendatzen dituzten interesak beraien interesetatik gero eta urrutiago daudela agerian jartzen ari dira. Testuinguru orokor honetan mendebaldeko gizartearen sistema politikoaren legimititatea zalantzan jartzen ari da.

Otxandioko Udalak gobernantza, edo gobernatzeko eren inguruan badauka esperientzia oso interesgarri bat. Esperientzia honek 2006. urtean Otxandioko Agenda 21 Estrategikoaren definiziora eraman zuen prozesu parte-hartzailean du abiapuntua. Prozesu hau gaur egunean indarrean dagoen garapen ereduaren irakurketa orokor batetik abiatu zen. Gai honen inguruan martxan jarri zen hausnarketa parte-hartzailearen bidez gaur egunean indarrean dagoen garapen ereduaren dimentsio anitzeko krisian murgiltzen ari dela ondorioztatu zen eta ondorengo 6 arlo nagusi azpimarratu ziren:

- Baloreen krisia.
- Krisi soziala.
- Krisi finantziario - ekonomikoa.
- Krisi ekologikoa.
- Krisi energetikoa.
- Krisi demografikoa.

Egoera honen aurrean gizakion behar material, emozional eta sozialak hobeto orekatuko dituen garapen eredu ezberdin baten alde lan egiteko apustua egin zuen Otxandioko Udalak eta hausnarketan parte hartu zuten hiritarrek.

Lehen prozesu honek Herri Ola egitasmoaren diseinura eraman zuen. Egitasmo honen helburu nagusia Otxandioren etorkizuna eraikitzerakoan hazkundean oinarritutako garapen eredu batetik, bizitza kalitatea helburu duen, eta iraunkortasuna, euskalduntasuna eta herritarren parte hartzea oinarri izango dituen garapen eredu justuago bateranzko trantsizioa gauzatzea izango da. Helburu nagusi honen baitan diskriminazio oro gainditzea adostutako zeharkako helburu nagusi bat da.

Egitasmo honekin Otxandioko Udalak demokrazia parte hartzailearen oinarriak Udal erabakietan barneratzeko apustua egiten du. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da prozesu guzti hau hasieratik hiritarren parte-hartzearekin gauzatu dela. Era berean, udal erabakietan hiritarren parte hartzea barneratzeko herritarren kontseilua diseinatu eta martxan jarri da. Herri kontseiluaz gain herritarren parte hartzea errazten duten beste bide batzuk ireki dira, hala nola: Herri-olaren amaraunkide eta Facebooken Herri-olaren jarraitzaile eginez, Web orrialdearen bitartez arlo ezberdinetan dauden

albisteetan iritzia emanez eta ekarpenak eginez, eta Herri-ola egitasmoaren baitan dauden Proiektu konkreturen baten garapenean parte hartuz.

Diskriminazio oro gainditzea Herri Ola egitasmoaren zeharkako helburu bat izanik emakume eta gizonen berdintasuna prozesu honetan barneratzeko beharra dagoela argi dauka Udalak. Zentzu honetan, Berdintasunerako Udal Plan honen bitartez behar horri erantzun bat emateko neurriak adostu dira.

Udalaren gobernatzeko eran funtsezkoak diren, eta herritarren parte hartzea bultzatzen duten, udal barne egituren artean udal batzordeak ditugu. Hauek irekiak dira, beraz interesa duten herritar orok parte hartu dezakete.

Otxandioko Udalaren gobernatzeko eredu eta praktikan genero mainstreaming estrategia barneratzea ezinbestekoa da diskriminazio oro gainditzeko helburua lortu ahal izateko. Zentzu honetan helburu hau lortzeko ze nolako pausoak emango diren zehazten da berdintasunerako Udal Planaren esparru honetan.

Mainstreaming kontzeptua hasiera batean Nazio Batuetako Emakumearen Egoera Juridikoaren eta Sozialaren Batzordeak proposatu zuen lehen aldiz, 1987an. Baina nazioarteko politikagintzan 1995ean sartu zen Nazio Batuen Erakundeak antolatuta Pekinen egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Batzarrean onartutako Ekintza Plataformaren bitartez.

Mainstreamingaren definizioan azpimarratzen diren osagaien arabera kontzeptu berak esanahi desberdinak hartzen baditu ere, gaur egun estrategia bikoitza bezala planteatzen da. Hau da, politika publikoak erabakitzean, antolatzean, gauzatzean eta ebaluatzean genero ikuspegia barneratzea suposatzen duen estrategia eta, era berean, emakumeen ahalduntzea bultzatzen duena, ekintza positiboen bitartez.

4/2005 Legearen arabera genero ikuspegia txertatzea honela definitzen da: *«Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea, eta politika eta jarduera guztietan, maila guztietan eta haien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza zehatzak gauzatzea».*

Ekintza positiboei dagokionez lege berak zera adierazten du: *«Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteei denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko».*

Estrategia bikoitz honek, genero diskriminazioa sortzen eta bermatzen dituzten gizarte egitura eta dinamiken eraldaketa suposatzen du, eta honek ikuspegi politikoaren aldaketa eskatzen du. Hau da, lehentasun politiko berrien definizioa eta errekurtsioen birbanaketa beharrezkoak izaten dira genero mainstreaming estrategia garatzeko. Honetaz aparte, administrazio publikoen egituraketan arduren banaketa bat suposatzen du, genero berdintasuna sail eta batzorde guztien ardura bihurtzen delarik. Era honetan, erakundearen antolaketan sailen arteko erantzunkidetasunaren printzipioa bermatzea eskatzen du.

Honela ulertura, mainstreaming strategiaren garapenerako hainbat oinarritzko baldintza bermatu behar dira:

- Genero ikuspegia politika publikoetan txertatzeko oinarrizko gaikuntza.
- Berdintasuna agenda politikoaren arlo guztietan txertatzea.
- Administrazio publikoaren egituraketaren aldaketarako aukerak egotea hurrengoko esparruetan: baloreak eta lanerako kultura, barne egiturak eta lan prozedurak.
- Emakumeen parte-hartzea bermatu erabakiak hartzerakoan, emakumeen artean dagoen egoeren aniztasuna kontutan harturik.
- Jarraipena egiteko eta koordinaziorako mekanismoak ezartzea.
- Edozein helburu gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatzea.

Helburu Orokorra G. 1.: Genero Mainstreaming estrategia udal politiketan barneratzeko behar diren baldintzak bermatzen hastea.

Helburu zehatza G.1.1.: Berdintasunerako politikak garatzeko beharrezkoak diren lan eta koordinazio egiturak ezarri.

Koordinazioa eta lan egiturak maila politikoan

Esan bezala, Udal mailan berdintasunerako politikak kudeatzeko unitate politikoa Giza Eskubideen Batzordearen barne kokatzen da. Batzordeen arteko koordinazioari ahalbidetzeko, astean behin batzorde guztiak batzen dira. Batzar hauetan zinegotzi guztiez gain, idazkariak eta arkitektoak ere parte hartzen dute.

Udal txiki bat izanda berdintasunerako politiken koordinazio egitura berri bat sortzea baino, dauden koordinazio egituren agenda eta lan dinamiketan berdintasuna barneratzea eraginkorragoa izango dela adostu da.

Ekintza G.1.1.1.: Batzordeen arteko koordinazio batzarren agendan berdintasunerako udal politiken kudeaketa eta koordinazioa barneratu

Arduradunak	Batzorde guztiak			
Inplikatuak	Batzorde guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Koordinazioa eta lan egiturak maila teknikoan

Maila teknikoan ematen den koordinazioa astean behin Alkateak udal langileekin egiten duen batzarraren bidez gauzatzen da. Batzar hauetan gizarte langilea izan ezik beste udal langileak batzen dira. Kasu honetan, maila politikoan gertatzen den bezala, maila teknikoan berdintasunerako politiken garapenerako koordinazio egitura berri bat sortzea baino dagoen koordinazio egituraren agendan berdintasunerako politikak barneratzea adostu da.

Ekintza G.1.1.2.: Langileen eta Alkatearen arteko koordinazio batzarren agendan berdintasunerako udal politiken kudeaketa eta koordinazioa barneratu

Arduradunak	Alkatetza			
Inplikatuak	Udal langileak eta Giza Eskubideen Batzordea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Gizarte langileak Durangoko Merinaldearen Amankomunazgotik kontratatzen den zerbitzuaren bitartez lan egiten du, asteen behin, Otxandioko Udalari. Ondorioz, alkateak udal beste langileekin egiten dituen koordinazio bileretan gizarte langilearen parte hartzea zaila izaten da. Egoera hau dela eta, Gizarte Langileak beste udal langileekin eta Alkate eta zinegotziekin duen koordinazioa egunerokotasunean sortzen diren beharren arabera ematen da. Beraz, eta kontutan harturik gizarte langilearen lanak duen lotura zuzena bazterketa egoeran edo arriskuan bizi diren herritar eta emakumeekin, koordinazio lan dinamika formal baten beharra identifikatu da.

Ekintza G.1.1.3.: Alkate eta Gizarte Langilearen arteko bi hilean behineko koordinazio batzarrak burutu

Arduradunak	Alkatetza			
Inplikatuak	Gizarte Langilea eta Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza G.1.2.: Berdintasunerako udal politiken garapena bultzatzeko erakundearen arteko koordinazioa sustatu

Beste Erakundeekiko koordinazioa eta lankidetzak

Otxandio bezalako udal txiki batentzat funtsezkoa da maila tekniko eta politikoan elkar-lanerako sareak sortzeko, topaketarako eta hausnarketarako guneetan parte hartzea. Parte-hartze honek berdintasun arloko esperientziak hurbiltzea zein elkartrukatzea eta jarduera bateratuak errazteaz gain, beste erakundeetatik eskaintzen diren baliabide eta laguntza ezagutzea eta eskuratzea ahalbidetzen du. Zentzu honetan, Otxandioko Udalak lehen pausoak eman ditu eta Berdinbidean Bizkaia zerbitzuarekin harremanetan jarri da zerbitzu honekin lan dinamikak indartzeko asmoarekin.

Ekintza G.1.2.1.: Berdintasunerako politikak bultzatzea helburu duten erakundeen arteko koordinazio gune eta sareetan parte hartzea

Arduradunak	Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Batzorde guztiak			
Aurrekontua	200€			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza G.1.3.: Berdintasunerako politikak garatzeko beharrezkoa den errealitatearen ezagutzarako tresnak garatu.

Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren herritarren egoeraren inguruko informazioaren kudeaketa

EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako V. Planak aipatzen duen bezala, berdintasunerako politika publiko eraginkorrak gauzatzeko ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen arteko desorekak hautematea eta kuantifikatzea, eta horien ezaugarriak finkatzea. Zentzu honetan, politika publikoen garapenerako tokiko errealitatearen ezagutza funtsezkoa izanik ezinbestekoa da ezagutza honek genero ikuspegia barneratua izatea.

Esan bezala Gizarte Langilea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgotik kontratatzen den zerbitzuaren bitartez lan egiten du Otxandioko Udalean. Egoera honek, Udaletxeko gizarte zerbitzuetara eskaera batekin zuzentzen diren inguruko informazioa eta zerbitzu honetatik kudeatzen diren prestakuntzak eta zerbitzuak jasotzen dituzten biztanleen inguruko informazioaren igorpena oztokatzen du. Honi aurre egiteko G.1.1.3. ekintzaren bitartez martxan jarriko den koordinaziorako lan dinamikaz aparte, informazioa jasotzeko, eta jasotako informazioaren irakurketa ahalbidetuko duen tresna baten beharra identifikatu da. Tresna hau Gizarte Langilea eta Alkatearen arteko koordinazio bileretan aztertuko diren edukiak lantzeko baliagarria izango da.

Dagoeneko lehen pausoak eman dira eta Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren herritarren erradiografia bat izateko oinarritzkoa den informazioaren inguruko proposamen bat adostu da.

Ekintza G.1.3.1.: Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren herritarren inguruko informazioa jasotzeko lan tresna bat diseinatu eta kudeatu

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea, eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Gizarte Langilea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			

Kronograma	2013	2014	2015	2016
------------	------	------	------	------

Herritarren parte-hartzearen inguruko informazioaren kudeaketa

Tresna honetaz aparte, herritarrei zuzendurik dauden Udalak antolatutako ekintzen parte-hartzearen inguruan oinarrizko informazioa jasotzeko eta informazio hau kudeatzeko tresna baten beharra ere identifikatu da. Tresna bera udal zerbitzuetara hurbiltzen direnen herritarren inguruko oinarrizko informazioa jasotzeko eta zentralizatzeko baliagarria izango da.

Herritarren inguruko oinarrizko datuak jasotzeko tresna guzti hauek, 4/2005 legeak dioena jarraituz, sexu aldagaia barneratuko du beste aldagaien artean.

Ekintza G.1.3.2.: Udaletxeak eskaintzen dituen zerbitzu eta antolatzen dituen ekintzen inguruan herritarren parte-hartzearen informazioa jasotzea eta kudeatzea ahalbidetuko duen tresna diseinatzea eta martxan jartzea. Honetarako 4/2005 legeak dioen bezala sexu aldagaia barneratuko da.

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Udal langileak eta Batzorde Guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Memoria, txostenak eta proiektuek diseinua

Era berean, aipatutako datuak jasotzeko tresnak burututako ekintzen inguruko memoria, txosten eta ebaluaketetarako baliagarriak izango dira, hauetan agertzen diren datuak sexuaren arabera banatuta egotea ahalbidetuko baitute. Baldintza hau errealitatearen inguruan egiten den irakurketan genero ikuspegia barneratzeko lehen pausoa izanik txosten guztietan era sistematiko batean barneratzen dela bermatzea funtsezkoa kontsideratzen da.

Ekintza G.1.3.3.: Udalak burutzen dituen proiektu, txosten, ebaluazio eta memoriatan agertzen diren datuak sexuaren arabera banatuta egotea.

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordeak			
Inplikatuak	Udal langileak eta Batzorde Guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza G.1.4.: Genero ikuspuntua udalak burutzen dituen azterlanetan barneratu

Azterlanak

Udalak Otxandioko herriko gizartearen inguruko hainbat azterlan eta ikerketa sozio historikoak bultzatu ditu. Azkena Oroimen Historikoaren inguruko ikerketa proiektu bat izan zen. Proiektu hauetan pertsona aditu edo profesionalen gain, Kultura Batzordearen bidez izandako herritarren parte-hartzea aipagarria da.

Martxan jarri nahi den hurrengo ikerketa proiektuak herriko merkataritzaren eta bizitza ekonomikoaren oinarri nagusia burdin olak ziren garaiko gizartearen ezaugarriak aztertuko ditu. Sexuaren lan banaketa heteropatriarkalaren eraginez emakumeek historian zehar burutu dituzten, eta gizartearen bizitzaren iraunkortasunerako funtsezkoak diren, rol eta lanak ez dira baloratuak izan eta, ondorioz, ezkutatuak izan dira. Hau dela eta, ikuspuntu heterokapitalistaren arabera egindako ikerketa sozio historikoek metaketaren logika kapitalistaren arabera ardatz diren egitura sozio-ekonomikoetan oinarritu izan dira.

Gizartea merkatuan dauden sektoreen mende dagoela zabaldua dagoen ideia da. Baina, berez, ekonomia elkar mendekotasunezko errealitate bat da, bertan pertsona guztiek beharrei erantzuteko ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituen zirkuitu integratu batean era desberdinetan parte hartzen dutelarik. Arazoa da, eginkizun eta gizartean parte-hartzeko era zehatz batzuk ikusi eta baloratzen diren bitartean (merkatu kapitalistaren arauen barne burutzen diren ordaindutako lanak), beste batzuk aintzakotzat hartu gabe dihardutela.

Ikuspuntu heterokapitalista eta heteropatriarkal honekin apurtu ahal izateko burdin olen garaiko gizartea aztertzerakoan, mendekotasunezko errealitatearen logika mantenduz, garai horretako gizartearen mantenurako funtsezkoak ziren eginkizun, rol eta parte-hartze era guztiak kontutan hartuko dira. Ildo hau jarraituz, emakumeek gizarte horretan burutzen zuten parte-hartze era desberdinak ikusgarri izango dira burutuko den ikerketa proiektuan.

Ekintza G.1.4.1: Herriko merkataritzaren eta bizitza ekonomikoaren oinarri nagusia burdin olak ziren garaiko gizartearen ezaugarriak aztertuko dituen ikerketa proiektuan genero ikuspuntua barneratu

Arduradunak	Kultura Batzordea			
Inplikatuak	Udal langileak eta Batzorde Guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza G.1.5.: Udal agiri eta komunikaziorako bitartekoetan irudien eta hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu

Hizkuntzaren erabilera ez sexista

Dagoeneko, Irudi eta hizkuntzaren erabilera ez sexistaren inguruko hainbat gidaliburu publikatu dituzte erakunde eta administrazio desberdinek. Beraz, udal mailan gai hau lantzeko planteatzen den lehen pausoa gidaliburuak bilaketa bat burutzea da, eskura dauden artean Otxandioko Udalaren beharretara egokitzen diren gidaliburuak identifikatu ahal izateko. Gidaliburu hauek udal langile eta zinegotziei aurkeztu ondoren, eguneroko lanean irudi eta hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko dauden beharrak identifikatu eta baloratu ondoren gai honen inguruko prestakuntza zehatza planifikatuko da.

Ekintza G.1.5.1.: Argitaratuta dauden irudi eta hizkuntzaren erabilera ez sexista lantzen duten gidaliburuak inguruko bilaketa bat egin, ondoren, Udalaren beharretara egokitzen dena langile eta zinegotziei aurkezteko

Arduradunak	Euskara Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Udal langileak eta Batzorde guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013			

Ekintza G.1.5.2.: Irudi eta hizkuntza ez sexistaren erabilaren inguruko gidaliburuak aurkeztu eta banatu ondoren, hau eguneroko lanean txertatzeko dauden beharrak identifikatu eta baloratu

Arduradunak	Euskara Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Udal langileak eta Batzorde guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013			

Ekintza zehatz hauekin batera Udaletxe barruko Euskararen Erabilera Planean hizkuntza ez sexistaren inguruko jarraibide eta gidalerroak barneratuko dira. Egon daitezkeen zailtasunak aztertuz eta hauei erantzun bat emateko aukerak identifikatuz urtero jarraibide hauek eguneroko lanean nola barneratzen diren baloratuko da.

Ekintza G.1.5.3.: Udaletxe barruko Euskararen Erabilera Planean hizkuntza ez sexistaren inguruko jarraibide eta gidalerroak barneratu eta urtero hauen erabileraren jarraipen bat burutu

Arduradunak	Euskara Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Udal langileak eta Batzorde guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza G.1.6.: Udal politiken plangintza, egikaratze eta ebaluazioan genero ikuspuntua barneratzeko beharrezkoa den gaikuntza eskaini

Gaikuntza eta prestakuntza

Eguneroko lanean genero ikuspegia barneratzeko beharrezkoa den oinarrizko gaikuntza funtsezkoa izanik, urtero honen inguruko prestakuntza saioak eskainiko zaizkie udal langileei. Prestakuntza orokor batetik hasita, identifikatzen diren beharren arabera prestakuntza zehatzak planifikatuko dira. Baliabide, eta hauen artean Udalak langileen prestakuntzarako daukan aurrekontuaren arabera, urtero prestakuntza bat antolatzea aurreikusten da. Prestakuntza hauen planifikaziorako beste erakunde batzuen eskaintza ere kontutan hartuko da, hala nola IVAPen eskaintza.

Ekintza G.1.6.1.: Genero ikuspuntua eguneroko lanean barneratzeko beharrezkoa den oinarrizko gaikuntzarako prestakuntza eskaini udal langileei

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea eta Alkatetza			
Inplikatuak	Udal langileak eta Batzorde Guztiak			
Aurrekontua	400€			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza G.1.7.: Berdintasun Arloa ikusarazi eta indartu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta hartu beharreko neurriak definituz.

Berdintasunerako Udal politiken difusioa

Udalak berdintasunerako politikak sustatzeko duen borondatea ikusaraztea funtsezkoa da, bai udal mailan eta baita herritarren artean ere. Zentzu honetan eman diren lehen pausoak hauek izan dira: Giza Eskubideen batzordearen lanaren aurkezpena eta Berdintasunerako Udal Planaren elaborazio prozesua azaltzen duen triptikoa banatu egin da etxebizitza guztietan; Udal Planaren elaborazio prozesua azaltzeko aurkezpen publikoa egin da; Udal web orrian

Udal Planaren elaborazio prozesuaren inguruko informazioa barneratzen duen atala sortu da.

Ekintza G.1.7.1.: Berdintasunerako Udal politika eta ekintzen inguruko informazioa zabaldu, Udal egituren barnean eta herritarren artean, komunikaziorako Udalak dituen bitartekoen bidez

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Batzorde guztiak eta web orriaren kudeaketa daraman enpresa			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Komunikaziorako bitarteko hauetaz gain berdintasunerako udal politiken difusiorako blog bat martxan jartzea aurreikusten da. Blog honen sarbidea Udal webaren lehen orrian kokatuko da.

Ekintza G.1.7.2.: Berdintasunerako Udal politiken difusiorako bloga diseinatu, martxan jarri eta eguneratu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Batzorde guztiak eta web orriaren kudeaketa daraman enpresa			
Aurrekontua	1.000 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Aurrekontuak

Berdintasuna bultzatzea helburutzat duten politika publikoen garapenerako baliabideak izatea oinarrizko baldintza bat da. Zentzu honetan 4/2005 legearen 14. artikulua xedapen orokorrak zera zehazten du:

Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.

Gaur egun krisi ekonomikoaren areagotzearen aurrean gobernuek inposatu dituzten neurriek eta aurrekontuen murrizketek herritarren bizi kalitate eta baldintzetan ondorio larriak eragin dituzte. Ondorioz, herritar asko ezegonkortasun-egoeretatik bazterketa-egoeretara igarotzen ari dira. Egoera hauetan, herritarrek ongizate material eta emozionala bermatzeko

beharrezkoak diren baliabideak eskuratzeko ezintasunari aurre egin behar diote. Gainera, gizarte-desberdintasunak nabarmen handitzen ari dira, gizarte-bazterketa eta bereizketa bide berriak sortzen ari direlarik.

Egoera honen aurrean administrazio publikoek bizi duten aurrekontuen murrizketen arabera lehentasunak ezartzerakoan gizarte-bazterketari eragozteko politikak bigarren maila batean geratzen ari dira. Honen adibide bat berdintasunerako politiken inguruan hainbat kasutan hartu diren neurrietan aurkitzen dugu: sail eta unitateen desagerpena, aurrekontu eta baliabideen murrizpen nabariak e.a.

Otxandioko Udalak gaur egun bizi dugun errealitateak herritarrengan dituen ondorioez jabeturik, dituen eskumenak, aukerak eta baliabideak kontutan harturik, bazterketa egoerei eta gizarte-desberdintasuei aurre egiteko apustua egin du. Berdintasunerako udal planaren diseinua eta inplementazioa apustu honen barne kokatzen da eta aurrekontuei dagokionez, berdintasunerako politikak sustatzeko partida zehatza sortzea aurreikusten da. Era berean, Planaren inplementaziorako adostuko diren urteko plangintzen arabera, eta batzordeen lan esparruen arabera, beste Batzordeen aurrekontuetatik urteko plangintzaren baitan adosten diren ekintzak bultzatuko dira.

Ekintza G.1.7.3.: Berdintasunerako Udal politiken garapenerako aurrekontu zehatz bat adostu

Arduradunak	Ogasun, Langileria eta Ondare Batzordea			
Inplikatuak	Giza Eskubideen Batzordea eta Batzorde guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza G.1.8.: Udal ordenantzetan genero ikuspegia barneratzen hasi

Udal ordenantzak

Otxandioko Udala udal ordenantzen berrikusketa egiterakoan, tasa eta prezio publikoen inguruko ordenantzen hobariak aztertzen ari da sozialki bidezkoa eta errekurtso murrizak dituztenen beharrak erantzuten duen proposamen bat adosteko asmoarekin. Proposamen honetan genero ikuspegia barneratzeko borondatearekin, gai honen inguruan egon daitezkeen hurbileko esperientzia pilotuak kontsultatu dira. Genero ikuspuntutik aurrekontu publikoen inguruko esperientziak egon badira ere, hain proposamen zehatzaren inguruko neurririk ez da momentuz identifikatu.

Ekintza G.1.8.1.: Tasa eta prezio publikoen Udal ordenantzen hobarien inguruan egiten den proposamenaren jarraipena egin genero ikuspuntutik

Arduradunak	Ogasun, Langileria eta Ondare Batzordea			
Inplikatuak	Giza Eskubideen Batzordea			
Aurrekontua	1.200 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu Orokorra G. 2.: Demokrazia parte hartzailea Udal kultura politikoan barneratzea helburutzat duten ekimenetan genero ikuspegia txertatu

Helburu zehatza G.2.1.: Herri Ola prozesuan genero ikuspegia barneratu

Herri Ola gogoeta prozesua

Udaletxeak Herri Ola prozesuan aurrera pausoak emateko asmoarekin, herritarren artean kultura parte-hartzailea sustatzeko eta herritarren artean Herri Olaren erreferentzia indartzeko “Herri Olan” gogoeta prozesua izeneko ekimena martxan jarriko du. Gogoeta prozesu honen helburuak ondorengo hauek dira: herritarren artean Herri Ola ezagutaraztea, jendartearen formazioa eta ideologizazioa bultzatzea, identifikazioan irabaztea eta Herri Ola elikatu eta aberastea.

Gogoeta prozesu hau burutzeko erabiliko den metodologiaren muinak foroak izango dira. Foroak Herri Ola prozesuaren baitan lantzen diren arloen arabera eta Herri Olaren oinarri diren zeharkako helburuen arabera antolatuko dira. Foro hauek kafe-tertuliaren formatua hartuko dut eta 2013 urte hasierarako genero berdintasuna landuko duen kafe-tertulia burutzea aurreikusia dago. Kafe-tertulia honetan Berdintasunerako Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesu-parte hartzaileari jarraipena eman nahi zaio. Kasu honetan, helburua Herri Ola prozesuan genero berdintasuna, zeharkako oinarri gisa eta lan eremu zehatz bezala, barneratzerakoan herritarren parte hartzea ahalbidetuko duen talde eragilea eratu eta honen lan dinamikak, eginkizunak eta estrategia adosten joatea izango da.

Ekintza G.2.1.1.: Herri Olan gogoeta prozesuan genero berdintasuna landuko den kafe-tertulia burutzea

Arduradunak	Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak				
Aurrekontua	200 €			
Kronograma	2013			

Talde eragilea

Herri Ola prozesuan genero berdintasunaren txertaketan herritarren parte-hartzea bermatzeko sortuko den talde eragilea Giza Eskubideen batzordetik koordinatuko da. Talde eragile honen bitartez berdintasunerako udal politiken plangintzan, eta Herri Ola prozesuaren baitan martxan jartzen diren ekimenetan, genero berdintasunaren txertaketan herritarren parte-hartzea bermatzeko beharrezkoak diren egitura, lan dinamikak eta hausnarketa prozesuak martxan jarriko dira.

Ekintza G.2.1.2.: Berdintasunerako Udal politiken plangintzan eta Herri Ola prozesuan genero berdintasunaren txertaketan herritarren parte-hartzea bultzatuko duen talde eragilea sortu eta bultzatu

Arduradunak	Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Talde eragilea osatuko duten herritarrak			
Aurrekontua	1.500 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburuen matrizea

Helburu Orokorra G. 1.: Genero Mainstreaming estrategia udal politiketan barneratzeko behar diren baldintzak bermatzen hastea	Helburu zehatza G.1.1.: Berdintasunerako politikak garatzeko beharrezkoak diren lan eta koordinazio egiturak ezarri	Ekintza G.1.1.1.: Batzordeen arteko koordinazio batzarren agendan berdintasunerako udal politiken kudeaketa eta koordinazioa barneratu
		Ekintza G.1.1.2.: Langileen eta Alkatearen arteko koordinazio batzarren agendan berdintasunerako udal politiken kudeaketa eta koordinazioa barneratu
		Ekintza G.1.1.3.: Alkate eta Gizarte Langilearen arteko bi hilean behineko koordinazio batzarrak burutu
	Helburu zehatza G.1.2.: Berdintasunerako udal politiken garapena bultzatzeko erakundeen arteko koordinazioa sustatu	Ekintza G.1.2.1.: Berdintasunerako politikak bultzatzea helburu duten erakundeen arteko koordinazio gune eta sareetan parte hartzea
	Helburu zehatza G.1.3.: Berdintasunerako politikak garatzeko beharrezkoa den errealitatearen ezagutzarako tresnak garatu	Ekintza G.1.3.1.: Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren herritarren inguruko informazioa jasotzeko lan tresna bat diseinatu eta kudeatu
		Ekintza G.1.3.2.: Udaletxeak eskaintzen dituen zerbitzu eta antolatzen dituen ekintzen inguruan herritarren parte-hartzearen informazioa jasotzea eta kudeatzea ahalbidetuko duen tresna diseinatzea eta martxan jartzea. Honetarako 4/2005 legeak dioen bezala sexu aldagaia barneratuko da
		Ekintza G.1.3.3.: Udalak burutzen dituen proiektu, txosten, ebaluazio eta memoriatan agertzen diren datuak sexuaren arabera banatuta egotea
	Helburu zehatza G.1.4.: Genero ikuspuntua udalak burutzen dituen azterlanetan barneratu	Ekintza G.1.4.1: Herriko merkataritzaren eta bizitza ekonomikoaren oinarri nagusia burdin olak ziren garaiko gizartearen ezaugarriak aztertuko dituen ikerketa proiektuan genero ikuspuntua barneratu

	Helburu zehatza G.1.5.: Udal agiri eta komunikaziorako bitartekoetan irudien eta hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu	Ekintza G.1.5.1.: Argitaratuta dauden irudi eta hizkuntzaren erabilera ez sexista lantzen duten gidaliburuaren inguruko bilaketa bat egin, ondoren, Udalaren beharretara egokitzen dena langile eta zinegotziei aurkezteko
		Ekintza G.1.5.2.: Irudi eta hizkuntza ez sexistaren erabileraren inguruko gidaliburua aurkeztu eta banatu ondoren, hau eguneroko lanean txertatzeko dauden beharrak identifikatu eta baloratu
		Ekintza G.1.5.3.: Udaletxe barruko Euskararen Erabilera Planean hizkuntza ez sexistaren inguruko jarraibide eta gidalerroak barneratu eta urtero hauen erabileraren jarraipen bat burutu
	Helburu zehatza G.1.6.: Udal politiken plangintza, egikaritze eta ebaluazioan genero ikuspuntua barneratzeko beharrezkoa den gaikuntza eskaini	Ekintza G.1.6.1.: Genero ikuspuntua eguneroko lanean barneratzeko beharrezkoa den oinarritzko gaikuntzarako prestakuntza eskaini udal langileei
	Helburu zehatza G.1.7.: Berdintasun Arloa ikusarazi eta indartu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta hartu beharreko neurriak definituz	Ekintza G.1.7.1.: Berdintasunerako Udal politika eta ekintzen inguruko informazioa zabaldu, Udal egituren barnean eta herritarren artean, komunikaziorako Udalak dituen bitartekoen bidez
		Ekintza G.1.7.2.: Berdintasunerako Udal politiken difusiorako bloga diseinatu, martxan jarri eta eguneratu
		Ekintza G.1.7.3.: Berdintasunerako Udal politiken garapenerako aurrekontu zehatz bat adostu
	Helburu zehatza G.1.8.: Udal ordenantzetan genero ikuspegia barneratzen hasi	Ekintza G.1.8.1.: Tasa eta prezio publikoen Udal ordenantzen hobarien inguruan egiten den proposamenaren jarraipena egin genero ikuspuntutik

Helburu Orokorra G. 2.:
Demokrazia parte hartzailea
Udal kultura politikoan
barneratzea helburutzat
duten ekimenetan genero
ikuspegia txertatu

***Helburu zehatza G.2.1.: Herri Ola prozesuan
genero ikuspegia barneratu***

Ekintza G.2.1.1.: Herri Olan gogoeta prozesuan genero berdintasuna
landuko den kafe-tertulia burutzea

Ekintza G.2.1.2.: Berdintasunerako Udal politiken plangintzan eta
Herri Ola prozesuan genero berdintasunaren txertaketan herritarren
parte-hartzea bultzatuko duen talde eragilea sortu eta bultzatu

III. Kapituluia - Berdintasun gaietan esku hartzeko ardatzak

Emakumeen ahalduntze eta balioen aldaketa

Antolaketa sozial erantzunkidea

Emakumeen aurkako indarkeria

III. Kapitulua

Emakumeen ahalduntzea eta balioen aldaketa

Gaur egungo gizartean emakumeek bizi duten egoera ulertu ahal izateko, mendeetan jasan dituzten hiritartasun-defizitak kontutan hartu behar dira. Borroka feministak emakumeek bizi duten mendekotasuna eta herritartasun-eskubideen gabezia salatu du. Borroka honi esker, emakumeak herritartzat hartuak izan dira hainbat herrialdeetan.

Genero mendekotasunaren oinarrian sexuaren arabera lan banaketa aurkitzen dugu. Banaketa honen arabera definituak izan dira nolakoak izan behar diren emakumeak eta nolakoak gizonak, zer egin dezaketen, zer egin behar duten eta zeintzuk diren dituzten eskubideak. Banaketa honen arabera, emakumeak gizarte-birsorkuntzan eta baliabide, denbora eta afektuen hornikuntzara atxikituak dira, gizonak esparru publikoan parte hartu eta bertan lehiatu ahal izateko. Paradigma honetan, gizarte-birsorkuntza, zainketak eta etxeetako espazioa esparru pribatu bezala kontsideratzen diren horretan kokatuak izan diren bitartean, esku-hartze politiko eta publikoak esparru pribatutik guztiz banatuta egongo balitz bezala ulertua izan da. Gizartean eman diren aldaketak kontutan izanda ere, paradigma honek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen gakoetariko bat izaten jarraitzen du eta emakumeek espazio publikoetan parte hartzean duten defizita ulertzen laguntzen digu.

Sistema patriarkalak bultzatzen dituen gizon eta emakumeen arteko botere harreman asimetrikoak gizartearen alor guztietan erreproduzitzen dira, hauek legitimatzeko logika patriarkal bera jarraitzen duten baloreen sistemez baliatzen delarik. Egoera honi aurre egiteko, eta emakumeen parte-hartze sozio politikoa indartzeko, emakumeen ahalduntze eta jabekuntza prozesuen estrategia funtsezkoa da.

EAEko Emakume eta Gizonen V. Planak adierazten duen bezala, ahalduntzea honela defini daiteke: *pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea*. Hau lortu ahal izateko ahalduntze eta jabekuntza prozesuen bidez emakumeak banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egiten dira, horrela areagotzen dutelarik erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena.

Banakakoa, emakumeek beren mendetasunari buruzko kontzientzia hartzeko prozesu pertsonala delako. Emakume bakoitzak ezagutzen ditu bere eskubideak, indar guneak eta interesak, eta horrela indartu egiten ditu bere autonomia eta botere pertsonala, eragina izateko eta erabakiak hartzeko ahalmena erabiltzeko asmoz. Taldekoa, prozesu horretan emakumeen interesak lotzen direlako, eta taldearen egoera sendoagoa izanik, baliabide materialetara eta sinbolikoetara errazago iritsi daitezkeelako.

Horrez gain, eragina izateko ahalmen handiagoa izango dute eta erabakiak hartzen eta gizartea aldatzen parte hartu ahal izango. Ildo horretatik, prozesua ez da banakora mugatzen; taldearen eremura ere zabaltzen da. Emakumeek banan-banan egindako lana lagungarria izango da interes kolektiboen alde borrokatzeko; hau da, genero interesen alde.⁴

⁴ EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana, 74. or.

Jabekuntza prozesu batek zer suposatzen duen ulertzeko, kontuan izan behar da jabekuntzak generoan oinarrituriko mendekotasuna birsortzen duten prozesu eta egituren errotiko aldaketa inplikatzeko duela. Beraz, mendekotasun mekanismo ugari erreproduzitzen dituen botere harremanen aldaketa eskatzen du, hau da, botere beraren zentzuaren interpretazio berri bat.

Generoan oinarritutako mendekotasuna gaindituko duen gizarte bat lortzeko emakumeen parte-hartze sozio-politiko funtsezkoa izanik, emakumeek pertsonen bizitzan eragina duten erabakiak hartzen diren esparru eta prozesuetan parte hartzeko duten eskubidea bermatu beharra dago. Azken honetan, erakunde eta instituzio publikoek badute aurre egin beharreko ondorengo erronka: berdintasunaren aldeko aldaketen protagonista eta aitzindari aktiboa den subjektu politiko baten aniztasuna onartzea eta kontutan hartzea. Hau da, emakumeek soilik osatua ez dagoen subjektua eta diskriminazio eta opresio bizipen desberdinak barneratzen dituenak. Adibidez, egoera sozio-ekonomiko eta kultural desberdinak direla eta diskriminazio anitza jasotzen duten emakumeak; aukeratutako sexualitate edo genero identitatea dela eta diskriminazio egoerei eta estigma sozialei aurre egin behar dioten herritarrak; eta, orokorrean, gizarte patriarkalak ezarritako genero ereduetatik at geratzen diren herritarrak.

Helburu Orokorra A. 1.: Emakumeen ahalduntze prozesu bat martxan jarri generoan oinarritutako mendekotasuna gaindituko duen gizarte eredu bat lortzeko estrategia gisa

Helburu zehatza A.1.1.: Otxandioko emakumeei zuzendutako ahalduntze prozesu bat martxan jarri

Emakumeen Ahalduntzea eta Jabekuntza

Berdintasunerako Udal Planaren diseinurako burutu den prozesu parte-hartzailean agerian geratu da emakumeen ahalduntzea indartuko duen proiektu baten beharra. Emakumeek beraien egoeraz jabetzeko, eta egunerokotasunean aurre egin behar dizkieten diskriminazio eta mendekotasun egoerak identifikatzeko, hausnarketarako esparru baten beharra adierazi dute. Bakoitzak bizi duen egoeraren arabera behar eta nahi desberdinen inguruan eztabaidatu arren, guztiek emakumeak izateagatik bizi dituzten diskriminazioei aurre egin ahal izateko esperientziak konpartitzeko eta estrategiak adosteko esparru baten beharra baloratu dute.

Otxandioko emakumeen ahalduntzerako proiektu bat diseinatzerako orduan Euskal Herri mailan dauden Jabekuntza eskolak eta hauen sareak erreferentzia bezala baloratzea proposatu da. Otxandio herri txiki bat izanik herri handietan dauden Jabekuntza Eskolen ereduak bera martxan jartzea oso zaila den arren, Eskola proiektu hauen esperientzia oso baliagarria izan daiteke Otxandioko errealitatera egokitutako proiektu bat diseinatzeko. Gainera, sare lanak baliabide gutxiko udal batentzat abantaila handiak suposa ditzake.

Ekintza A.1.1.1.: Emakumeen ahalduntzea indartuko duen proiektu bat diseinatu eta martxan jarri

Arduradunak	Giza Eskubideen batzordea.			
Inplikatuak	Herritarrak eta zehazki herriko emakumeak			
Aurrekontua	2.400 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Maskulinitate ereduak

Planaren diseinurako herriko emakumeei zuzenduta martxan jarri den prozesu parte-hartzailean agerian geratu da rol eta balore sexisten aldaketaren beharra. Emakume guztiek adierazi dute rol eta balore sexistak oraindik indarrean daudela eta hauek aldatzeko herriko emakume eta gizonekin lan egiteko beharra dagoela. Gainera, herriko gizon bat udaletxera zuzendu da

maskulinitate ereduak gizonengan duten eraginaren inguruan hausnarketa prozesu bat irekitzeko premia adierazteko.

Maskulinitateen inguruko hausnarketa prozesu bat irekitzeko, beste erakundeetatik dauden esperientzia eta hauek eskaintzen dituzten baliabide eta aukerak baloratuko dira.

Ekintza A.1.1.2.: Maskulinitate ereduak inguruko hausnarketa prozesu bat ireki

Arduradunak	Giza Eskubideen batzordea.			
Inplikatuak	Herritarrak eta zehazki herriko gizonak			
Aurrekontua	2.000 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza A.1.2.: Rol eta balore sexisten aldaketa bultzatu diskriminazio anitza bizi dutenen egoera kontutan harturik

Beste kultur eta herrialdeetatik etorritako emakumeak

Otxandio, Euskal Herriko herri askok bezala, bi immigrazio prozesu nagusi bizi izan ditu azken hamarkadetan. Lehenengoa, Estatu Espainiarraren beste eremuetatik etorritako herritarrak burututakoa. Bigarrena, Estatutik kanpoko herrialdeetatik etorritakoak herritarrek aurrera eraman dutena. Eustaten datuen arabera atzerrian jaiotako herritarrak 2001. urtean 12 ziren bitartean 2011ean 108ra iritzi dira.

Atzeritik etorritako biztanleek gain, azkeneko urte hauetan Otxandioko herrian inguruko lurraldeetako biztanleen etorrera nabaria izan da. Eustaten datuen arabera azken bost urteetan batez ere Bizkaian jaiotako biztanleak izan dira Otxandiora bizitzera etorri direnak.

Migrazio mugimenduak sexuaren arabera aztertu ezkerreko Eustateko datuek zera adierazten dute: Emakumeen migrazio saldoa 2006. urtetik ia bikoiztu den bitartean (8tik 15tera) gizonen migrazio saldoa gutxitu egin dela (24tik 7ra).

Gaur egun bizi dugun gizartean beste kultura eta herrialdeetatik datozen herritarrek bazterketa bizitzeko duten arriskua kontutan izanik, lan esparru hau Berdintasunerako Udal Planean barneratzeko apustua egin du Udalak. Zentzu honetan, eta prozesu parte-hartzailean agerian jarri den bezala, emakume etorkinen inguruan bizirik dauden eta beraien bazterketa sozialean eragina dituzten aurreiritziak genero ikuspuntu batetik lantzeko beharra dago. Hau dela eta, herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio kanpaina bat burutzea proposatu da, honen barne burutuko diren ekintza zehatzetan emakume etorkinen protagonismoa eta partaidetza bultzatuko delarik. Proposamena urtean zehar herritarrei zuzenduriko ekintza kulturaletan gai hau lantzen joatea da.

Berdintasunerako udal politiken urteko plangintzan adostuko dira sentsibilizazio kanpainaren barne burutuko diren ekintza zehatzak.

Ekintza A.1.2.1.: Emakume etorkinen inguruan bizirik dauden eta beraien bazterketa sozialean eragina dituzten aurreiritziak genero ikuspuntu batetik landuko duen sentsibilizazio kanpaina bat martxan jarri

Arduradunak	Kultura Batzorde eta Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Euskara Batzordea eta Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea			
Aurrekontua	700 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Rol eta eredu sexistak gazteengan

Genero rol eta balore sexistek gazteengan duten eragina lantzen hasteko, aipatu den bezala, herriko neska gazteei zuzenduriko lan saio bat burutu da. Bertan rol eta balore sexistak herriko gazteen artean indarrean daudela egiaztatu ondoren, gai hau neska gazteekin eta mutil gazteekin lantzeko dagoen beharra identifikatu eta neska gazteek ondorengo proposamena planteatu zuten: genero rol eta ereduak neska eta mutil gazteengan duten eragina lantzeko hausnarketa prozesu bat burutzea. Hasierako saioetan neska eta mutilak bananduta egotea proposatzen bazuten ere, azken saioetan iritzi, ikuspuntu eta bizipenak konpartitzeko aukera izateko neska eta mutilen arteko eztabaida eta hausnarketa saioak elkarrekin egitea planteatu zen.

Hausnarketa prozesu honen ebaluaketa gazteei zuzenduriko proiektu eta ekintzak planifikatzen jarraitzeko eta lan ildoak definitzen joateko baliagarria izango da.

Ekintza A.1.2.2.: Rol eta eredu sexistek gazteengan duten eragina aztertzeko herriko neska eta mutil gazteei zuzenduriko hausnarketa prozesu bat martxan jartzea

Arduradunak	Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Otxandioko Gazte Asanblada			
Aurrekontua	1.800 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu Orokorra A.2.: Herriko bizitza publikoan ardatz diren Udal eta herri ekimenetan gizarte eredu ez sexista batera iristeko beharrezkoak diren baloreen aldaketak bultzatu

Helburu zehatza A.2.1.: Herri Ola gogoeta prozesuaren baitan burutuko den hezkuntzaren inguruko hausnarketa prozesuan genero ikuspegia barneratu

Hezkuntza

Udalak Herri Olan gogoeta prozesuaren bitartez Hezi izendatuko den hezkuntzaren inguruko hausnarketa prozesu bat zabalduko du. Egitasmo honen baitan gurasoen txoko bat martxan jarri nahi da, bertan haurren hezkuntzaren inguruko hausnarketa saioak burutzeko asmoarekin.

Berdintasunerako Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesu parte-hartzailean emakume askok adierazi duten bezala, herriko umeak oso goiz hasten dira genero rol tradizionalak erreproduzitzen. Honen aurrean umeen zaintzaz arduratzen direnek egoera hau bideratzeko eta lantzeko tresnak eskuratzeko beharra adierazi dute. Honetaz aparte, hausnarketa honetan herriko gizonak barneratzeko beharra ere identifikatu da.

Guzti hau kontutan harturik Herri Olan gogoeta prozesuaren barnean hezkuntzaren inguruan burutuko den kafe tertulian genero rolen transmisioa eta erreprodukzioa zeharkako gaia bezala barneratzea proposatu egin da. Baita bultzatuko den gurasoen txokoaren bitartez burutuko diren hausnarketa prozesuetan ere.

Ekintza A.2.1.1.: Herri Olan prozesuaren baitan hezkuntzaren inguruan martxan jarriko den hausnarketa prozesuan genero rolen transmisioa eta erreprodukzioa zeharkako ardatz gisa txertatu

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Haurren zaintzaren ardura duten herritarrak eta gurasoen elkarteak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Kirolak

Gaur egun Kirolak umeen hezkuntzan pisu handia dauka, batez ere hezkuntza formaletik kanpo haurrentzat antolatzen diren ekintzetan. Gai hau lantzeko Herri Ola gogoeta prozesuaren bitartez hausnarketarako ekintzak burutuko dira, lehen aipaturiko Hezi lan arloaren baitan. Gizartean nagusi diren kirol ereduetan rol eta balore sexisten erreprodukzioa indartzeko arriskua dagoen

heinean, herri mailan ze nolako kirol eredu bultzatu nahi den aztertzea premiazkoa da. Zentzu honetan, Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesu parte-hartzailean haurren hezkuntzaren inguruan burututako saioan emakumeek gai honen inguruan dituzten ardurak kaleratu zituzten, beraien seme alabentzat herri mailan kirol eredu ez sexista bat bermatzeko premia adieraziz.

Ekintza A.2.1.2.: Herri Olan prozesuaren baitan haur eta gazteei zuzenduriko kirol ereduaren inguruan burutuko den hausnarketa prozesuan genero ikuspegia barneratu

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Haurren zaintzaren ardura duten herritarrak eta gurasoen elkarteak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarriarik aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza A.2.2.: Herriko bizitza publikoan ardatz diren aisialdirako ekintza eta ekintza kulturaletan genero ikuspegia barneratu

Ludoteka eta udalekuak

Haur eta gazteen hezkuntzarekin jarraituz, hauei zuzenduriko udalak antolatutako aisialdirako ekintzak eta ekintza kulturalak ditugu. Hauetan hezkidetzan oinarritutako hezkuntza bat bultzatzeko funtsezkoa da genero rol eta eredu ez sexisten transmisioa bermatzea. Helburu hau lortzeko proposatu diren urratsak ondorego ekintza zehatzetan gauzatzen dira:

Ekintza A.2.2.1.: Ludotekan eta herriko udalekuetan lan egiten duten monitoreei hezkidetzaren inguruko prestakuntza eskaini

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Ludotekan eta herriko udalekuetan lan egiten duten monitoreak			
Aurrekontua	800 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Ekintza kulturalak

Ekintza A.2.2.2.: Herritarrei zuzenduriko ekintza kulturalak antolatzerakoan edukietan genero berdintasuna bermatzeko baldintzak ezarri

Arduradunak	Kultura Batzordea, Euskara Batzordea eta Giza Eskubideen batzordea			
Inplikatuak	Ekintza kulturalak burutzen dituzten kanpo enpresak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Eleaniztasuna zein kultur aniztasunez osaturiko testuinguru batean herriaren izaera euskalduna kontutan harturik Udalak euskararen biziberritzearen aldeko apustu finkoa egiten du. Udalaren Euskara Sailak, Euskara Biziberritze Plan Nagusia garatzeaz gain, herriko talde eragileekin lan egiten du euskararen erabilera indartzeko helburuarekin. Elkar lan honen bitartez herritarrei zuzenduriko hainbat ekintza antolatzen dira urtero. Hala nola, Korrika, jolasen eguna, Euskararen eguna eta bertso afaria. Ekintza hauek herri mailan duten arrakasta kontutan harturik genero rol eta balore ez sexistak bultzatzeko aukera interesgarri bat eskaintzen dute.

A.1.3.4 ekintzak ezartzen duen bezala, herritarrei zuzenduriko ekintza kulturalak antolatzerakoan edukietan genero berdintasuna bermatzeko baldintzak ezarriko dira. Honetaz gain, antolatzen diren ekintza kulturalen artean genero berdintasuna zehazki lantzea ere proposatzen da. Berdintasunerako Udal planaren garapenerako adostuko diren urteko plangintzetan erabakiko da herritarrei zuzenduriko ekintza kulturalen artean zeintzuk diren genero berdintasuna zehazki landuko dituzten ekintzak. Zentzu honetan 2013. urterako hauek dira planteatzen diren ekintza zehatzak:

Ekintza A.2.2.3.: Euskara Batzordeak eguneroko eta hurbileko gaiak euskaraz jorratzeko helburuarekin urtero antolatzen duen ginkanaren 2013. urteko gaia hizkuntza ez sexistaren erabilera izatea

Arduradunak	Euskara Batzordea			
Inplikatuak	Euskara teknikaria			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013			

Ekintza A.2.2.4.: Azaroak 25eko – Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna – Udal kanpainaren barne gai hau lantzen duen antzerki emanaldi bat antolatu

Arduradunak	Kultura Batzordea			
Inplikatuak	Giza Eskubideen Batzordea			
Aurrekontua	1.200 €			
Kronograma	2013			

Helburu Orokorra A.3.: Genero ikuspuntua barneratuko duen herritarren parte-hartze sozio politikoa sustatu

Helburu zehatza A.3.1.: Gizartean estigmatizatu eta baztertuak diren eredu heteropatriarkalatik kanpo dauden bizitzeko eren aniztasuna ikusgarri egin, aniztasun honetan murgiltzen diren pertsonen parte hartzea herriko bizitza publikoan sustatzeko helburuarekin.

Bizi eredu aniztasuna

Herri txikietan ordena heteropatriarkalaren kanpo geratzen diren bizi eredu aniztasunaren ikusgarritasuna bizitza publikoan oso mugatua izaten da. Honek, eredu hauek orokorrean bizi duten estigmatizazioa eta bazterketa indartu egiten du. Egoera honen aurrean aniztasun honetan murgiltzen diren herritar askok hiri handietara emigratzea erabakitzen dute, hauetan estigma eta bazterketa soziala indarrean egon arren bizitzeko eredu aniztasuna handiagoa delako.

Otxandioko Udalak ordena heteropatriakal nagusietatik kanpo dauden bizi eredu desberdinen ikusgarritasuna herriko bizitza publikoan bultzatzeko lehen urratsak ematea erabaki du. Honetarako gai honen inguruan nazioarte mailan antolatzen diren kanpainetan parte hartzea proposatzen da.

Ekintza A.3.1.1.: Maiatzak 17ko – transforbia, lesbofobia, bifobia eta homofobiaren aurkako eguna – kanpainan parte hartu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Kultura Batzordea			
Aurrekontua	700 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Ekintza A.3.1.2.: Jaietan sexualitate aukera desberdinen askapenerako sentsibilizazio ekintzak burutu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea eta Kultura Batzordea			
Inplikatuak	Jaietarako Batzordea			
Aurrekontua	700 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza A.3.2.: Herriko parte-hartze sozio politikorako esparruetan genero berdintasuna bultzatu

Emakumeen parte-hartze sozio politikoa

Berdintasunerako Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesu parte-hartzailean herriko emakumeen parte hartzeari dagokionez diagnostikoan ateratako ondorioak baieztatu dira: Gizonen rol tradizionalarekin lotura duten ekintzetan gizonen presentzia gehiengo den heinean – adibidez jarduera fisikoa, indarra eta lehiakortasunarekin harreman zuzena duten ekintzetan – emakumeen rol tradizionalarekin lotura dutenetan emakumeak dira nagusi – jarduera artistiko eta kulturalarekin harremana duten ekintzetan eta seme-alaben zaintzarekin lotura dutenak, hala nola gurasoen elkartea –.

Prozesu parte-hartzailean parte hartu duten emakumeek herriko bizitza publikoan emakumeen parte-hartzea oso handia dela azpimarratu badute ere, botere eta erabaki esparruetan emakumeen presentzia murrizta dela adierazi dute. Adibidez, politika esparru tradizionalak kontsideratzen direnetan – kasu honetan udal organo politikoetan – kopuru aldetik emakumeen parte hartzea parekidea izanik ondorengo egoerak aipatu dira:

- Jasotako datuek adierazten duten bezala, zinegotziak dien emakumeen eta udal batzordeetan parte hartzen dutenen adin tarte oso zehatza da. Gizonen adin tartearekin konparatu ezkerreko alde nabaria da, gizonen adin tarte askoz zabalagoa baita.
- Zaintzarako ardurei dagokionez, zinegotziak diren eta batzordeetan parte hartzen duten emakumeen mendekotasuna duten pertsonen zaintzaren ardura ez da oso nabaria. Kasu honetan adinak ere zerikusia dauka, orokorrean emakume gazteen artean zaintza ardurak murriztagoak baitira. Egoera honek denboraren erabilera aldetik aukera handiagoak eskaintzen ditu.
- Gizonen artean familia barrua mendekotasuna duten pertsonak izateak ez du parte-hartze politikoak eskatzen duen denboraren erabilera oztopo handirik suposatzen. Honek zaintzaren ardura nagusia bereganatzen ez dutenaren adierazgarria da.
- Udal batzordeen lan esparruei dagokionez rol eredu tradizionalen arabera segregazioa ematen da. Honek, ikuspuntu heterokapitalistaren arabera, udal batean boterearen muina

kontsideratzen diren esparruetan gizonen nagusitasuna suposatzen du – Otxandioko kasuan Alkatetza, Hirigintza Batzordea, Ogasun, Langileria eta Ondare Batzordea eta Garapen Ekonomikorako Batzordea –.

Emakume helduen artean egon dira emakumez osaturiko esparruetan esparru mistoetan baino erosoago sentitzen direla adierazi dutenak. Era berean, bizitzaren zaintzarekin lotura duten ardura asko bereganatzen badituzte ere, politika “ofizialarekin” lotura duten ardurak bere gain hartzea zailago egiten zaiela aipatu dute.

Orokorrean herriko bizitza publikoan parte hartzeak herritarrak direla sentitzera, hau da herriaren parte sentitzera, laguntzen diela azpimarratu dute. Dena den, prozesu parte-hartzailean herriko emakume asko falta zirela mahai gainean jarri da, emakume hauen iritzi, nahiak eta beharrak jaso ahal izateko hauen parte hartzea bultzatzeko beharra aipatu delarik.

G.2.1.1. eta G.2.1.2. ekintza zehatzen bidez aurreikusten den bezala, Herri Olan gogoeta prozesuan genero berdintasuna landuko duen Kafe-tertulia burutuko da. Honen helburua Herri Ola prozesuan genero berdintasuna, zeharkako oinarri gisa eta lan eremu zehatz bezala, barneratzerakoan herritarren parte hartzea ahalbidetuko duen talde eragilea eratu eta honen lan dinamikak, eginkizuna eta estrategia adosten joatea izango da. Ekintza hauekin batera, herriko emakumeen parte hartzearen inguruan identifikatu diren beharrak lantzeko aurreikusten den emakumeen ahalduntzea indartuko duen proiektuaren barne (A.1.1.1. ekintza), parte-hartze sozio politikoaren inguruko lan saioak burutzea proposatzen da.

Ekintza A.3.2.1.: Emakumeen parte-hartze sozio politikoa bultzatuko duten ahalduntze lan saioak burutu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Herriko emakumeak			
Aurrekontua	800 €			
Kronograma	2013	2014		

Beste kultur eta herrialdeetatik datozen emakumeen parte-hartzea

Lehen aipatu den bezala, Otxandioko bizitza publikoan euskararen erabilera nabaria da – bai udal mailan eta baita herri mailan ere –. Honek euskara hizkuntzaren erabileraren oinarritzko ezagutzak ez dituztenentzat oztopo bat suposatu dezake herriko bizitza publikoan parte hartu ahal izateko. Egoera honetaz jabeturik Udalak, Euskara Batzorderen bitartez, herritarrek euskara ikasi ahal izateko erraztasunak eta ekintzak bultzatzen ditu. Hala nola, euskara ikastaroen tasen parte bat ordaintzeko diru-laguntzak eskaini eta Otxandioko Berbalagun ekimenaren dinamizazioa aurrera eraman.

Dena den, hainbat herritarrek adierazi duten bezala, errekurtsio ekonomikoen gabezia eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza ardurak ikastaroak egin ahal izateko oztopoak suposatzen dituzte. Jatorri kulturalaren arabera ere eta balore sexistek ere oztopo bat izan daitezke emakumeek ikastaro hauetan parte hartzeko.

Errekurtsio ekonomikoei dagokionez, Berbalagun ekimenak dohainik badira ere euskara ezagutza maila minimo bat eskatzen dute. Beraz, errekurtsio ekonomiko gutxiko herritarrak, oinarritzko euskararen ezagutzarik ez dutenak, mendekotasuna dutenen zaintzaren ardura dutenak eta jatorri kulturalaren arabera ere eta balore sexista zehatzak jasaten dituzten emakumeak dira udalak eskaintzen dituen ekimenetan parte hartzeko arazo handienak dituztenak. Hauen artean etorkinak, eta zehazki emakume etorkinak, ditugu.

Esan bezala, herriko bizitza publikoan euskararen erabilera nabaria izanik, oinarritzko ezagutza bat eskuratzea herritarren, eta zehazki emakumeen, parte hartzea bultzatzeko bide bat izan daiteke. Bestalde etorkinen, eta zehazki emakume etorkinen, euskalduntze ekimen batek hauek bizi duten errealitatearen inguruko ezagutza sakontzeaz gain herri mailan bizirik dauden etorkinen inguruko aurreiritziak gainditzen lagundu dezake.

Euskal Herriko hainbat herrietan etorkinei zuzenduriko, eta Berbalagunen ekimenen filosofia jarraituz, hainbat ekintza martxan jarri dira. Esperientzia hauen inguruko informazioa jasotzea oso baliagarria izan daiteke Otxandio bezalako herri baten errealitatera egokituta egon daitekeen proiektu bat martxan jartzeko.

Ekintza A.3.2.2.: Euskal herrian etorkinen euskalduntzearen inguruko esperientzien informazioa jaso Otxandio etorkinen, eta zehazki emakume etorkinen, beharretara egokitutako proiektu bat diseinatu eta martxan jartzeko

Arduradunak	Euskara Batzordea			
Inplikatuak	Giza Eskubideen Batzordea eta Otxandio herritarrak			
Aurrekontua	1.300 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu Orokorra A.4.: Emakumeek baliabide ekonomiko eta sozialak lortzeko eta kontrolatzeko dituzten aukerak bultzatu

Helburu zehatza A.4.1.: Garapen ekonomikoarekin lotura duten Udal ekimenetan genero ikuspegia barneratu

Garapen ekonomikorako udal ekimenak

Garapen ekonomikoarekin lotura duten udal ekimen nagusiak ondorengo hauek dira:

- Gorbeialdearekin diseinatzen ari den Lehen Sektorearen Plan Estrategikoa eta Turismorako Plana.
- Zuiako Koadrilarekin batera adostu den eta egikaratze fasean dagoen Eskualdeko Enplegu Plana.

Otxandioko herriko kokapen geografikoak Udalak beste maila administratiboko egiturekin lan dinamika iraunkorrak eta sakonak ezartzerako orduan ez ditu erraztasunak eskaintzen. Esan bezala, hainbat zerbitzu Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren bitartez kudeatzen dira, herritarrei zuzenduriko osasun zerbitzu gehienak Araban kokatuak daude eta, atal honetan ikusten den bezala, garapen ekonomikoarekin lotura duten udal ekimenek kokapen desberdinak dituzte.

Berdintasunerako politiken sustapenerako funtsezkoak kontsideratzen diren koordinaziorako eta jarraipen bat egin ahal izateko lan egitura eta baldintzak Otxandioko Udalak harremanak dituen beste maila administratiboko erakunde guztiekin bermatzeko dituen aukerak mugatuak badira ere, kasu bakoitzean dauden aukerez baliatuz lehen urratsak ematen hastea proposatu da. Zentzu honetan, Lehen Sektorearen Plan Estrategikorako EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte) sindikatuko berdintasun sailarekin elkarlanerako aukerak baloratzea planteatu da.

Ildo honetatik jarraituz, Gorbeialdearekin batera definitzen ari diren planek barneratzen dituzten beharrak, helburuak, eta proposamenak adosterakoan Otxandioko Udalak, herriko emakume eta gizonen egoera kontutan harturik, genero ikuspuntuaren txertaketa bultzatuko du. Era berean, adostutako ekintzak burutzerakoan eta burutu ondoren ebaluatzerakoan, Otxandioko errealitatea kontutan harturik, generoaren araberrako eragina barneratzea bultzatuko da.

Ekintza A.4.1.1.: Lehen Sektorearen Plan Estrategikoa eta Turismo Planaren diseinu prozesuan – eta ondorengo inplementazio eta ebaluazio prozesuetan – Otxandioko errealitatea kontutan harturik emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak barneratu

Arduradunak	Garapen Ekonomikorako Batzordea			
Inplikatuak	Giza Eskubideen Batzordea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Eskualdeko Enplegurako Plana inplementazio fasean aurkitzen da. Landu den ekintza planak barneratzen dituen proposamenen artean Ekintzailatza

Jardueretarako proiektuarekin aurrera egitea adostu da. Proiektu honen helburuak honako hauek dira:

- Enpresa ekimenak toki garapeneko ikuspegiaren bitartez babestea, bultzatzea eta sustatzea, eta enplegu hobi berriei eta interes estrategikoko sektoreei lotuta.
- Enpresen eta autonomoen sorrera sustatzea, erabateko zerbitzu baten bitartez. Zerbitzu horrek erabiltzaileari ekarpen nagusi hauek egingo dizkio: orientazioa, abian jartzeko aholkularitza, gaitasunak hartzea eta enpresa jabekuntza.
- 10 negozio ideien proiektuak abian jartzeko aholkularitza osatzea.

Proiektu hau burutzeko AMPEA (Arabako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte) elkartearen laguntza kontratatuko da. Honek, burutuko diren ekintzetan herriko emakumeen egoera, beharrizan, nahi eta jomugak barneratu ahal izateko elkarlanerako aukera eskaintzen du. Zentzu honetan, garrantzitsua da herriko emakume eta gizonen proiektuan parte hartu ahal izateko dituzten zailtasun eta beharrak kontutan izatea, hauek gainditzeko irtenbideak aurkitu ahal izateko. Adibidez, bere gain dituzten zaintza ardurak direla eta proiektuan parte hartzeko zailtasunak, garraiorako beharrak, proiektuaren inguruko informazioa jasotzen dutela ziurtatzea e.a.

Ekintza A.4.1.2.: Eskualde Enplegu Planaren barne burutuko diren ekintzen inplementazio, jarraipen eta ebaluazio faseetan herriko emakume eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak barneratu

Arduradunak	Garapen Ekonomikorako Batzordea			
Inplikatuak	Giza Eskubideen Batzordea eta AMPEA elkarte			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza A.4.2.: Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea

Laneratze eta gizarteratze ekimenak

Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden pertsonen zuzenduriko gizarteratze eta laneratze zerbitzuak Otxandiotik kanpo daude. Honek oztopo bat suposatzen du egoera hauetan dauden pertsona askorentzat, eta zehazki emakumeentzat. Hau bera adierazi dute Berdintasunerako Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesu parte-hartzailean parte hartu duten emakumeek, batez ere diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten emakume etorkinak. Ondorengo hauek izan dira azpimarratu dituzten zailtasunak: garraio publikoaren zerbitzu mugatuak, garraiatzeko bitarte pribatuen gabezia, zaintza ardurekin bateragarri ez diren ordutegiak e.a.

Egoera honi erantzun bat emateko Euskal Herri mailan herri txikien errealitatera egokitutako gizarteratze eta laneratze esperientzien inguruko informazioa jasotzea proposatzen da, horrelako proiektu bat Otxandion martxan jartzeko aukerak baloratzeko. Aldi berean, bazterketa arriskuan edo egoeran dauden herritarren egoeraren inguruko informazioa aztertzea eta sakontzea funtsezkoa da.

Ekintza A.4.2.1.: Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden herritarrei zuzenduriko, eta genero ikuspegia barneratuko duen, gizarteratze eta laneratze proiektu baten bideragarritasuna baloratu eta, ondorioen eta aukeren arabera, proiektu bat diseinatu eta martxan jarri

Arduradunak	Garapen Ekonomikorako Batzordea eta Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea			
Inplikatuak	Gizarte Langilea			
Aurrekontua	2.000 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Bizi dugun krisi ekonomikoaren areagotzearekin pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan dauden herritarrentzat kalitatezko elikagaiak eskuratu ahal izatea gero eta zailagoa bihurtu daiteke. Otxandioko herrian bertako landa produktuak eskuratzeko aukerak handiak dira. Batez ere, lurra lantzen eskuratzen diren barazkiak, Udalak oso prezio merkean lurra alokatzeko aukera eskaintzen baitu. Egia da herritarren artean familia kontsumorako diren landa produktuak lantzeko kultura handia dagoela. Baina egia da ere, beste kultur eta herrialdeetatik etorri diren herritarrak ez daudela kultur honetan barneratuta. Gainera, herritar hauek krisi ekonomikoari aurre egiteko baliabide gutxien dituztenen artean aurkitzen dira.

Egoera honen aurrean, beste kultur eta herrialdeetatik etorri diren herritarrak, eta pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran daudenak, herrian bizirik dagoen landa produktuak lantzeko kulturaren barneratzeko helburuarekin, sektore honek eskatzen duen jakintzaren inguruko herritarren arteko elkartruke proiektu bat martxan jartzea proposatzen da.

Herrialde askotan emakumeek familia kontsumora zuzenduriko nekazaritzan izan duten eta daukaten funtsezko papera kontutan harturik – eta genero ikuspegia barneratu ahal izateko – jakintzaren inguruko herritarren arteko elkartruke proiektu honetan beste kultur eta herrialdeetatik etorritako emakume herritarren presentzia bermatuko da.

Ekintza A.4.2.2.: Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden beste kultura eta herrialdeetatik etorritako herritarrak – eta zehazki emakumeak – familia kontsumora zuzenduriko nekazaritzaren inguruan dagoen herri kulturen barneratzeko herritarren arteko elkartruke proiektu baten bideragarritasuna baloratu. Eraitzen eta ondorioen arabera proiektua martxan jarri eta bultzatu

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea, Garapen Ekonomikorako Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Gizarte Langilea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarriarik aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu Orokorra A. 1.: Emakumeen ahalduntze prozesu bat martxan jarri generoan oinarritutako mendekotasuna gaitutuko duen gizarte eredu bat lortzeko estrategia gisa	Helburu zehatza A.1.1.: Otxandioko emakumeei zuzendutako ahalduntze prozesu bat martxan jarri	Ekintza A.1.1.1.: Emakumeen ahalduntzea indartuko duen proiektu bat diseinatu eta martxan jarri
	Helburu zehatza A.1.2.: Rol eta balore sexisten alaketak bultzatu diskriminazio anitza bizi dutenen egoera kontutan harturik	Ekintza A.1.1.2.: Maskulinitate ereduaren inguruko hausnarketa prozesu bat ireki Ekintza A.1.2.1.: Emakume etorkinen inguruan bizirik dauden eta beraien bazterketa sozialean eragina dituzten aurreiritziak genero ikuspuntu batetik landuko duen sentsibilizazio kanpaina bat martxan jarri Ekintza A.1.2.2.: Rol eta eredu sexistek gazteengan duten eragina aztertzeko herriko neska eta mutil gazteei zuzenduriko hausnarketa prozesu bat martxan jartzea
Helburu Orokorra A.2.: Herriko bizitza publikoan ardatz diren Udal eta herri ekimenetan gizarte eredu ez sexista batera iristeko beharrezkoak diren baloreen alaketak bultzatu	Helburu zehatza A.2.1.: Herri Ola gogoeta prozesuaren baitan burutuko den hezkuntzaren inguruko hausnarketa prozesuan genero ikuspegia barnera	Ekintza A.2.1.1.: Herri Ola prozesuaren baitan hezkuntzaren inguruan martxan jarriko den hausnarketa prozesuan genero rolen transmisioa eta erreproduktzioa zeharkako ardatz gisa txertatu Ekintza A.2.1.2.: Herri Ola prozesuaren baitan haur eta gazteei zuzenduriko kirol ereduaren inguruan burutuko den hausnarketa prozesuan genero ikuspegia barneratu Ekintza A.2.1.3.: Ludotekan eta herriko udalekuekin lan egiten duten monitoreei hezikidetzaren inguruko prestakuntza eskaini
	Helburu zehatza A.2.2.: Herriko bizitza publikoan ardatz diren aisialdirako ekintza eta ekintza kulturaletan genero ikuspegia	Ekintza A.2.2.1.: Herriarrei zuzenduriko ekintza kulturalak antolatzerakoan edukietan genero berdintasuna bermatzeko baldintzak ezarri Ekintza A.2.2.2.: Euskara Batzordeak eguneroko eta hurbileko gaiak

	barneratu	euskaraz jorratzeko helburuarekin urtero antolatzen duen ginkanaren 2013. urteko gaia hizkuntza ez sexistaren erabilera izatea
		Ekintza A.2.2.3.: Azaroak 25eko – Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna – Udal kanpainaren barne gai hau lantzen duen antzerki emanaldi bat antolatu
		Ekintza A.2.2.4.: Azaroak 25eko – Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna – Udal kanpainaren barne gai hau lantzen duen antzerki emanaldi bat antolatu
Helburu Orokorra A.3.: Genero ikuspuntua barneratuko duen herritarren parte-hartze sozio politikoa sustatu	Helburu zehatza A.3.1.: Gizartean estigmatizatu eta baztertuak diren eredu heteropatriarkalatik kanpo dauden bizitzeko eren aniztasuna ikusgarri egin, aniztasun honetan murgiltzen diren pertsonen parte hartzea herriko bizitza publikoan sustatzeko helburuarekin	Ekintza A.3.1.1.: Maiatzak 17ko – transforbia, lesbofobia, bifobia eta homofobiaren aurkako eguna – kanpainan parte hartu
		Ekintza A.3.1.2.: Jaietan sexualitate aukera desberdinen askapenerako sentsibilizazio ekintzak burutu
	Helburu zehatza A.3.2.: Herriko parte-hartze sozio politikorako esparruetan genero berdintasuna bultzatu	Ekintza A.3.2.1.: Emakumeen parte-hartze sozio politikoa bultzatuko duten ahalduak lan saioak burutu
		Ekintza A.3.2.2.: Euskal herrian etorkinen euskalduntzearen inguruko esperientzien informazioa jaso Otxandioko etorkinen, eta zehazki emakume etorkinen, beharretara egokitutako proiektu bat diseinatu eta martxan jartzeko

Helburu Orokorra A.4.: Emakumeek baliabide ekonomiko eta sozialak lortzeko eta kontrolatzeko dituzten aukerak bultzatu	<i>Helburu zehatza A.4.1.: Garapen ekonomikoarekin lotura duten Udal ekimenetan genero ikuspegia barneratu</i>	Ekintza A.4.1.1.: Lehen Sektorearen Plan Estrategikoa eta Turismo Planaren diseinu prozesuan – eta ondorengo inplementazio eta ebaluazio prozesuetan – Otxandioko errealitatea kontutan harturik emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak barneratu
		Ekintza A.4.1.2.: Eskualde Enplegu Planaren barne burutuko diren ekintzen inplementazio, jarraipen eta ebaluazio faseetan herriko emakume eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak barneratu
	<i>Helburu zehatza A.4.2.: Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea</i>	Ekintza A.4.2.1.: Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden herritarrei zuzenduriko, eta genero ikuspegia barneratuko duen, gizarteratze eta laneratze proiektu baten bideragarritasuna baloratu eta, ondorioen eta aukeren arabera, proiektu bat diseinatu eta martxan jarri
		Ekintza A.4.2.2.: Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden beste kultura eta herrialdeetatik etorritako herritarrak – eta zehazki emakumeak – familia kontsumora zuzenduriko nekazaritzaren inguruan dagoen herri kulturaren barneratzeko herritarren arteko elkartruke proiektu baten bideragarritasuna baloratu. Eraitzen eta ondorioen arabera proiektua martxan jarri eta bultzatu

III. Kapitulua

Antolaketa sozial erantzunkidea

Gaur egungo gizartearen antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoaren baitan logika kapitalista eta bizitzaren arteko gatazka konponezin bat aurkitzen dugu. Hau da, gizarte kapitalistak bizitza eta lur-ingurunea kapitala metatzeko prozesuaren zerbitzura jartzen du. Honek, gizarte ereduaren jasangarritasun eza dakar, bizitzak kapitalaren metaketaren logikari oztopo egiten dioen heinean bizitza bera suntsitzeko joera indarrean baitago. Era berean, kapitalaren metaketaren logikari lehentasuna emateak bizitzaren zaintzan eta iraunkortasunean gizartearen erantzukizuna eragozten du. Era honetan, erantzukizun hau pribatizatu egiten da (familia esparrura mugatuz), ikusezin bihurtzen da (gizarteak eremu pribatu eta publikoaren arteko ezartzen duen banaketa lagunduta), feminizatu eta balio gabetu egiten da eta, ondorioz, esplotazio eta baldintza eskasetan burutzen da.

Bizitzak lehentasuna ez duen gizarte baten legimititatea lortzeko bizitzaren eta gizartearen arteko gatazka konponezina ikusezina bihurtzen da, hau da, arazo indibidual eta pribatu bat izango balitz bezala aurkezten da.

Bizi dugun krisi ekonomikoaren areagotzearen aurrean indarrean dauden zerbitzu publikoen murrizketek lehenik aurreikusten zen bizitzaren zaintzaren krisiarengan dituzten ondorioak ikusgai egin behar dira. Zentzu honetan, zerbitzu hauek eskaintzen zuten zaintzaren ardura nork bereganatuko duen, zein baldintzatan eta zein ondorioekin aztertu beharra dago.

Gizarte eredu heterokapitalista honen aurrean bizitzaren zaintzak eta iraunkortasunak lehentasuna izango duen eredurantz pausoak emateko zaintzaren erantzukizuna kolektiboa kontsideratu beharra dago. Honetaz gain, zaintza era zabalean ulertu behar da, hau da, gizakien arteko interdependentzia onartuz guztiok zaintzarako ditugun behar desberdinak aintzat hartu behar dira. Era berean, herritar guztien kalitatezko zaintzarako eskubidea eta zaintza lanaren baldintza duinak bermatzea ezinbestekoa da.

Guztion kalitatezko zaintzarako eskubidea bermatzeak batzuen zaintza duinak beste batzuen zaintza baldintza eskasak ez eragiteak suposatzen du. Gaur egun zaintzaren kate orokorren baitan sortzen diren desberdintasunek pertsona guztiok zaintza jasotzeko eskubide bera ez dugula erakusten dute. Bestalde, errealitate eta egoera desberdinek eskatzen duten erantzun eta neurriak ere aztertu behar dira. Hau da, ezin da aukera bakarra inposatu nola zaindu behar den aukeratzeko orduan.

Gizartea antolatzeko eredu berri baten premia bizitzaren esfera ezberdinen harmonizazioa izan beharko luke oinarri. Honetarako gaur egun esfera guztiak bakar batera, hau da lan merkatu kapitalistara, egokitu beharraren joerarekin apurtu behar da. Zentzu honetan “kontziliazio” hitzak sexuaren araberako lan banaketak sortutako esparru publiko eta pribatuaren banaketa faltsua indartu dezake. Bi esparru hauek hermetikoak eta bananduak bailira eta publikoaren beharren lehentasuna ezarritz bateratu behar direnak bezala jokatzeko baita askotan. Horregatik kontziliazioa baino haratago joan beharra dago, erantzunkidetasuna berdintasun politiken printzipio gisa ezarritz. Hau da, emakume zein gizonak, zein gizartearen eragile guztiek – Estatua, merkatua e.a. – bizitzaren zaintzari dagokion erantzukizuna barneratu behar dute.

Helburu Orokorra E.1.: Gizarte antolaketa erantzunkide baterako lehen urratsak ematea

Helburu zehatza E.1.1.: Bizitzaren zaintzaren inguruan Otxandioko herrian dauden egoera eta beharrak aztertu, hauei erantzun bat eman ahal izateko aukerak baloratzeko

Nagusi proiektua

Otxandioko Udalak Nagusi izendatu den proiekturako hausnarketa prozesu bat martxan jarriko du. Proiektu honen helburu nagusiak ondorengo hauek dira:

- Pertsona adinduen asebetetze eta ongizate maila, eta ondorioz bizitza kalitate egoki bat erdiestea.
- Gaitasun eta konpetentzia funtzional eta sozialak eta harreman sozial eta familiarak mantentzea.
- Komunitatearekiko harremanak mantendu eta sustatzea normalizazioa eta integrazioa bermatze aldera.
- Narriadura fisiko, psikiko edota funtzionalaren, eta interakzio sozialaren urritzearen prebentzioa, ekintza sozialak eta estimulazio tratamendu/programak sustatuz.
- Harreman familiar eta sozialen gehigarri izango den atentzio profesionala eskaintzea, gertukoa, pertsonalizatua eta humanoa, beti ere, familia esku-hartzearen ardatz kontsideratuz.
- Pertsona adinduen eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatu eta bermatzea.
- Zahartzearen, adinduen zaintzaren eta zentro sozioasistentzialen irudi positiboa sustatzea gizartean.

Nagusi proiektua garatzeko martxan jarriko de hausnarketa prozesuaren helburua nagusien bizitza kalitatea hobetzen lagunduko duten ekintza praktikoak ondorioztatzea da. Hauek kontutan harturik, proiektuaren azken helburua Otxandioarentzat esku-hartze psikosozialerako plangintza integral bat diseinatzea da, gerontologiaren alorrean komunitate mailako parte-hartze prozesu zabal baten bitartez.

Prozesu parte-hartzailearen bitartez aztertuko diren eremu guztien inguruko tokiko errealitatearen diagnostiko zehatza burutu nahi da. Diagnostikoan genero ikuspegia barneratu ahal izateko, emakume nagusien bizitzetan genero eredu eta baloreek duten eragina aztertuz, beraien egoera, beharrizan, nahi eta jomugak kontutan hartu beharko dira. Era berean, eta pertsona nagusien zaintza eta bere ondorioak aztertuko direnez, indarrean dagoen gizarte antolaketa ereduan zaintzaren feminizazioak, balorazio ezak eta pribatizazioak Otxandioko emakume zaintzaileengan dituen ondorioak aztertzea funtsezkoa

da. Baita pertsona nagusien zaintzaren inguruan ematen diren lan baldintzak ere.

Bestalde, genero ikuspuntua barneratu ahal izateko helburuen artean, eta adosten den esku-hartze psikosozialerako plangintza integralean, zaintzaren erantzukizun kolektiboaren printzipioa barneratu behar da, hartuko diren neurriak eta martxan jarriko diren zerbitzuak printzipio hau jarraitu beharko dutelarik. Honetaz gain, pertsona nagusiek ze nolako zaintza nahi duten eta kaltegarriak kontsideratzen duten zaintza erak aztertuz, guziona kalitatezko zaintzaren eskubidea helburuen artean barneratu beharra dago.

Azkenik, lan baldintza duinen helburua ere egingo diren proposamenen eta hartuko diren erabakien oinarri izatea funtsezkoa da indarrean dauden, eta generoan oinarritzen diren, diskriminazio eta bazterketa egoerei aurre egin ahal izateko.

Proiektuaren osotasunean genero ikuspuntua barneratu ahal izateko kontratatuko den kanpo laguntza osatuko duten profesionalak generoan adituak izatea ezinbesteko baldintza da. Beraz, Udalak kanpo kontratazioa burutzerakoan baldintza hau betetzen dela ziurtatu beharko du. Era berean, hausnarketa prozesuaren bitartez burutuko diren eztabaidak estrukturatzeke eratuko den lan taldearen barruan generoan aditua den pertsona bat gutxienez egon behar da.

Ekintza E.1.1.1.: Nagusi proiektuan genero ikuspegia barneratu ahal izateko oinarrizkoak diren baldintzak bermatu

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea			
Inplikatuak	Kontratatuko den kanpo laguntza eta eratuko den lan taldea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Umeen zaintzarako zerbitzuak

Eskola kanpoko umeen zaintzari dagokionez, orain dela gutxi arte, herri mailan gehienbat familia esparru barruan edo baliabide pribatuen bitartez burutzen zen lan bat zen. Egoera hau, haurren zaintzaren inguruko zerbitzuen eskaera dela medio, aldatuz joan da. Zentzu honetan orain dela 4 urte haur-eskola publikoa ireki zen 0-2 urte bitarteko umeentzat. Bestalde, familia sarearen laguntza ez duten herritar berrien etorrerak umeen zaintzaren inguruko beharrak kaleratu ditu. Ondorioz, gurasoen elkartearen laguntzarekin, 2012-2013 ikasturterako harrera gela martxan jarri da.

Dena den, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoen seme-alaben zaintzan aitona-amonek, eta batez ere amonek, duten papera garrantzitsua izaten jarraitzen du.

Udaletxetik herri mailan arlo honetan dauden beharren eta honen aurrean hartzen diren neurrien ondorioen jarraipena egitea proposatzen da. Era berean, zaintzaren erantzukizun kolektiboaren printzipioa eta guztien kalitatezko zaintzaren eskubidea sustatuz, herri mailan martxan jartzen diren ekimenak babestea eta bultzatzea planteatzen da.

Ekintza E.1.1.2.: Herri mailan umeen zaintzaren inguruan dauden beharren eta honen aurrean hartzen diren erabakien jarraipena egitea. Era berean, zaintzaren erantzukizun kolektiboaren printzipioa eta guztien kalitatezko zaintzaren eskubidea sustatuz, herri mailan martxan jartzen diren ekimenak babestea eta bultzatzea

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Guraso Elkarteak eta Gizarte Langilea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarriarik aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza E.1.2.: Generoaren arabera lan banaketaren ondorioz indarrean dauden rol eta eredu sexistak aurrean parekidetasunean oinarritutako rol eta eredu berriak bultzatu

Generoan oinarritutako lan banaketa

Berdintasunerako udal planaren diseinurako martxan jarri den prozesu parte-hartzailean parte hartu duten emakumeek generoan oinarritutako lan banaketaren ondorioz ezarritako rol eta eredu sexistak indarrean daudela adierazi zuten. Gaurko egoera emakume nagusiek gaztaroan bizi izan zuten egoerarekin konparatu ezker aurrera pausoak eman direla onartu bazen ere, familia barruko rol tradizionalen eragina guztiek azpimarratu zuten, rol hauek beraie bizitza pribatuan zein publikoan zituzten ondorioak azpimarratu zirelarik. Zentzu honetan, bizitzaren zaintzaren erantzunkidetasuna bultzatzeko rol eta eredu berriak lantzeko beharra identifikatu zen. Honetarako herriko gizonen parte-hartzea ezinbestekoa kontsideratu zen.

Egoera honen aurrean, A.1.1.1. ekintza (Emakumeen ahalduntzea indartuko duen proiektu bat diseinatu eta martxan jarri) eta A.1.1.2. (Maskulinitate ereduen inguruko hausnarketa prozesu bat ireki) ekintzaren bidez martxan jarriko diren proiektu eta prozesuetan barneraturik erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzen duten sentsibilizazio ekintzak burutzea proposatzen da.

Ekintza E.1.2.1.: Generoan oinarritutako lan banaketak bultzatutako rol eta eredu sexistekin apurtzeko eredu eta balore berriak sustatuko dituen sentsibilizazio ekintzak burutu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Herriko talde eragileak eta orokorrean herritar guztiak			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarriarik aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu Orokorra E.2.: Antolaketa sozial erantzunkide baterako beharrezkoa den denboraren erabileraren inguruko hausnarketak bultzatu

Helburu zehatza E.2.1.: Botere eta erabaki politikorako esparruetan emakumeen parte-hartzea oztopatzen duten lan dinamiken eta denboraren erabileraren inguruko hausnarketa prozesu bat zabaltzea

Denboraren erabilera Udal lan dinamiketan

Prozesu parte-hartzailean azpimarratu den bezala tradizionalki esparru politiko formalek eskatzen duten denboraren erabileraren inguruko dinamikek emakumeen parte hartzea oztopatzen dute – batez ere mendekotasuna duten pertsonen zaintza ardura duten emakumeen parte hartzea –. Egoera hau aztertzeko, Udal mailan indarrean dauden lan dinamika eta denboraren erabileraren inguruko hausnarketa prozesu bat zabaltzea proposatzen da. Hausnarketa hauetan parte-hartze politiko instituzionalean indarrean dauden lan dinamika eta erak berrikuzteaz gain, dinamika eta ere berrien aukerak aztertuko dira.

Ekintza E.2.1.1.: Udal mailan indarrean dagoen parte-hartze politikoak eskatzen duen denboraren erabileraren inguruko hausnarketa prozesu bat ireki emakumeen parte-hartzea oztopatzen duten dinamika gaitzitzeko helburuarekin

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea eta Udal Batzorde guztiak			
Inplikatuak	Berdintasunerako udal politiketan herritarren parte-hartzea bermatzeko sortuko den talde eragilea			
Aurrekontua	3.000 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza E.3.1.: Udalaren mugikortasunaren inguruko plangintzan genero ikuspuntua barneratu gizarte antolaketa erantzunkidearen irizpidea jarraituz

Mugikortasunaren inguruko Udal plangintza

Udalak mugikortasunaren inguruko plangintza definitzen eta lantzen ari da. Egitasmo honen abiapuntua Otxandio bezalako herri txiki baten mugikortasun beharren azterketa izango da. Azterketa hau herritarrei zuzenduriko prozesu parte-hartzaile baten bidez burutzen ari da – zehazki Herri Ola prozesuaren baitan – eta *Oinez* izendatu den proiektuaren barne dauden hiru ardatz nagusien arabera egituratzen da:

- Espazio publikoen antolaketa.
- Barne mugikortasunari dagokionez, mugikortasun “ez behartuen” barruan nukleo urbanoan ematen diren desplazamenduak landuko dira oinez burututako desplazamenduak bultzatzeko helburuarekin.
- Kanpo mugikortasunaren beharrianak.

Mugikortasunaren inguruan egin diren azterketa gehienak hiri handietara egokituak izan direnez, herri txikien errealitateari egokitutako eredu bat erabiltzea proposatzen da. Ikerketarako eredu honetan, generoarekin zerikusi zuzena duten ondorengo elementuak kontutan hartzeko konpromisoa hartu du udalak:

- Generoan oinarritutako bazterketa egoeren ondorioz, eta beste faktore sozio kulturalen eraginaren ondorioz, ikusezin geratu daitezkeen herritarren behar eta jomugak kontutan hartzen direla bermatuz, herritar guztien parte-hartzea bultzatu.
- Mugikortasun politikek lan produktiboak sortutako oinarrietatik abiatzeko duten joeraren aurrean, bizitzaren zaintzaren inguruan sortzen diren mugikortasun beharrak udal plangintzaren ardatzean kokatuko dira.
- Herritar guztien segurtasuna bermatu, gai honen aurrean herriko gizon eta emakumeek dituzten bizipen eta beharrak kontutan hartuko direlarik.
- Herritarren mugitzeko beharrak aztertzerakoan behar hori asetzen ez denean ere aztertuko da, herritarrek dituzten “desio-marrak” zehaztuz. Honetarako, mugikortasunaren inguruan eskura dauden ohizko datuek dituzten mugak kontutan harturik, herritarrei zuzenduriko prozesu parte-hartzailearen bidez “desio-marra” hauek identifikatzeko esfortzua egingo da.
- Mugikortasun “behartuta” eta “ez behartuta” sailkapenak ezkutatu ditzakeen gizarte antolaketa patriarkalaren inguruko aurreiritziak kontutan harturik – adibidez “mugikortasun behartuta” soilik lanera edo ikastera joateko egiten diren desplazamenduak kontsideratzea –, bizitzaren zaintzarekin loturik dauden mugikortasun beharrak

barneratuz mugikortasun behartuta kontzeptua zabaltzea proposatzen da.

Ekintza E.3.1.1.: Udal mugikortasun plangintzaren barruan burutzen diren egitasmo guztietan genero ikuspegia barneratzen dela bermatu

Arduradunak	Hirigintza Batzordea			
Inplikatuak	Udaletxeko Arkitektoa			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Hiri Debekatuaren Mapa

Mugikortasun plangintzaren baitan martxan dagoen prozesu parte-hartzailearen bidez egin den lehen ekintza herritarren Kontseiluan Oinez proiektuarekin lotura duten hainbat gai eztabaidatzea izan da. Bertan Mainerrota auzoa sarrera mugatuko gunetik bihurtzeko hartu beharreko neurriak herritarrekin eztabaidatu ziren. Kontseiluan parte hartu zuten emakumeen eskutik batez ere, segurtasunaren inguruko gaia mahai gainean jarri zen. Zehazki, oinez burutzen diren desplazamendu zehatzetan gunetik ilun eta bakartietan erasoak jasotzeko arriskuak nola mugatzen dituen eztabaidatu zen. Gai honetan sakontzeko asmoarekin hirigintzak, kasu honetan herri planifikazioak, generoarekiko duen eragina aztertzeko Euskal Herriko hainbat herri eta hirietan burutu den *Hiri Debekatuaren Maparen* inguruko esperientzia Otxandion burutzea proposatzen da.

Ekintza E.3.1.2.: Hiri Debekatuaren Mapa proiektua diseinatu eta martxan jarri hirigintza sailak hartzen dituen erabakietan genero ikuspegia barneratu ahal izateko

Arduradunak	Hirigintza Batzordea			
Inplikatuak	Udaletxeko Arkitektoa			
Aurrekontua	3.000 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Oinez proiektua eta Herri Ola gogoeta prozesuan burutuko diren kafe tertuliak

Oinez proiektuaren hurrengo urratsak Herri Ola gogoeta prozesuaren baitan burututakoak dira, proiektu honen inguruan hausnarketa sakontzeko asmoarekin herritarrei zuzenduriko kafe tertuliak antolatuko baitira. Hauetan barne eta kanpo mugikortasunaren inguruan eta espazio publikoaren antolaketaren inguruko eztabaidak dinamizatuko dira. Zentzu honetan, eta

udalak esparru honi dagokionez hartu dituen konpromisoekin jarraituz, kafe tertulietan burutuko diren eztabaida hauek dinamizatzerakoan genero ikuspegia barneratzea eta lehen aipaturiko elementuak kontutan hartzea planteatzen da.

Ekintza E.3.1.3.: Herri Ola gogoeta prozesuaren baitan Oinez proiektuaren inguruan burutuko diren kafe tertulietan genero ikuspegia barneratu

Arduradunak	Hirigintza Batzordea
Inplikatuak	Udaletxeko Arkitektoa
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten
Kronograma	2013

Helburu zehatza E.3.2.: Kanpo mugikortasunari dagokionez herriko emakume eta gizonen egoera, behar, nahi eta jomugak kontutan hartu esparru honetan herritarrek, eta zehazki emakumeek, dituzten zailtasunei erantzun bat eman ahal izateko

Garraio publikoa

Otxandio bezalako herri txiki batentzat kanpo mugikortasuna bermatzea funtsezkoa da bizitzaren esparru askotan dauden beharrei erantzun bat eman ahal izateko eta herritarren autonomia bermatzeko. Adibidez, ikasketak burutu ahal izateko, lan merkatuan barneratzeko aukerak izateko, hainbat zerbitzu eskuratu ahal izateko, aisialdiarekin eta kulturarekin loturik dauden ekintzez gozatzeko autonomia izateko e.a.

Beste herri txiki batzuekin konparatuz Otxandioko bizitza publikoak duen eskaintza aipagarria bada ere – eta Udalaren helburua hau indartzea izan arren – ezin da ukatu pertsonen autonomia eta independentzia ekonomikorako eta garapen pertsonalerako kanpo mugikortasunaren beharra dagoela askotan.

Ikerketa askok azaldu duten bezala, generoak mugikortasunean eragin zuzena dauka. Adibidez, emakumeek auto bat izateko eta erabiltzeko duten aukera txikiagoa izanik, garraio publikoa gehiago erabiltzen dute. Beraz, auto pribatuaren erabilerak eskatzen duen eta garraio publikoak eskaintzen ez duen desplazamenduak burutzeko arazoekin aurkitu daitezke. Berdintasunerako Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesu parte-hartzailean errealitate hau islatu da batez ere errekurso ekonomiko mugatuak dituzten emakumeen artean eta emakume nagusien artean.

Lehen aipatu den bezala, Otxandioko kanpo mugikortasunari dagokion garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzua oso mugatua da. Egoera honi aurre egiteko Udala eta herritarrak elkartu dira – beste Udal batzuekin batera – zehazki, Durango-Gazteiz autobus linearen zerbitzuen hobekuntza bultzatzeko. Autobus linea hau 2013an amaitzen den Arabako Foru Aldundiaren kontzesio

baten bidez kudeatzen da. Kontzesio hau amaitzen denean, zerbitzu honek eskaintzen duen bidaien maiztasun eskasak sortzen dituen mugikortasunaren inguruko arazoak konpontzeko asmoarekin Mañaria, Izurtza, Otxandio, Legutio eta Abadiñoko herritar eta udal ordezkariak batu dira Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei proposamen bat luzatzeko.

Ekintza E.3.2.1.: Garraio publikoa, eta zehazki Durango-Gazteiz autobus linea, hobetzeko Udalak martxan jarri duen egitasmoaren jarraipen hestua egin, 2013an linea honen inguruko kontzesioa amaierak eskaini ditzakeen aukerak bultzatzeko asmoarekin

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Hirigintza Batzordea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Kanpo mugikortasunerako garraio publikoak bultzatzeko asmoarekin Udalak garraioaren ordenantza berri bat lantzen ari da. Ordenantza honen bidez garraio publikoa diruz laguntzeaz gain Udalak garraio kolektiboa saritzea baloratzen ari da. Mugikortasunean generoak duen eragina kontutan harturik ordenantzan herriko emakumeen – eta mugikortasunerako arazoak dituzten beste kolektiboen – egoera, behar eta jomugak barneratzea funtsezkoa da. Bestalde, politika publikoetan sarri bigarren maila batean geratzen diren bizitzaren zaintzaren inguruko beharrak lehen maila batean kokatzea ere beharrezkoa da generoan oinarrituak dauden bazterketa egoerei aurre egiteko.

Ekintza E.3.2.2.: Udaletxeak lantzen ari den garraioaren ordenantzan genero ikuspegia barneratzen dela bermatu

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Hirigintza Batzordea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Garraio kolektiboa

Garraio kolektiboari dagokionez, honen inguruan Euskal Herri mailan dauden ekimenak eta proiektuak baloratuko dira – adibidez Bidekide egitasmoa –, gai honen inguruan Otxandioko emakume eta gizonen beharrei egokitutako ekintza bat burutzeko asmoarekin.

Ekintza E.3.2.3.: Garraio kolektiboa bultzatzen duten esperientzien inguruko informazioa jaso Otxandioko emakume eta gizonen beharretara egokituriko ekintza bat martxan jartzeko

Arduradunak	Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Hirigintza Batzordea			
Aurrekontua	1.700 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburuen matrizea

Helburu Orokorra E.1.: Gizarte antolaketa erantzunkide baterako lehen urratsak ematea	Helburu zehatza E.1.1.: Bizitzaren zaintzaren inguruan Otxandioko herrian dauden egoera eta beharrak aztertu, hauei erantzun bat eman ahal izateko aukerak baloratzeko	Ekintza E.1.1.1.: Nagusi proiektuan genero ikuspegia barneratu ahal izateko oinarritzakoak diren baldintzak bermatu
	Helburu zehatza E.1.2.: Generoaren araberako lan banaketaren ondorioz indarrean dauden rol eta eredu sexisten aurrean parekidetasunean oinarritutako rol eta eredu berriak bultzatu	Ekintza E.1.1.2.: Herri mailan umeen zaintzaren inguruan dauden beharren eta honen aurrean hartzen diren erabakien jarraipena egitea. Era berean, zaintzaren erantzukizun kolektiboaren printzipioa eta guztien kalitatezko zaintzaren eskubidea sustatuz, herri mailan martxan jartzen diren ekimenak babestea eta bultzatzea
Helburu Orokorra E.2.: Antolaketa sozial erantzunkide baterako beharrezkoa den denboraren erabileraren inguruko hausnarketak bultzatu	Helburu zehatza E.2.1.: Botere eta erabaki politikorako esparruetan emakumeen parte-hartzea oztopatzen duten lan dinamikien eta denboraren erabileraren inguruko hausnarketa prozesu bat zabaltzea	Ekintza E.2.1.1.: Udal mailan indarrean dagoen parte-hartze politikoak eskatzen duen denboraren erabileraren inguruko hausnarketa prozesu bat ireki emakumeen parte-hartzea oztopatzen duten dinamikak gainditzeko helburuarekin
Helburu Orokorra E.3.: Herri plangintzan gizarte antolaketa	Helburu zehatza E.3.1.: Udalaren mugikortasunaren inguruko plangintzan	Ekintza E.3.1.1.: Udal mugikortasun plangintzaren barruan burutzen diren egitasmo guztietan genero ikuspegia barneratzen dela bermatu

erantzunkidearen printzipioa barneratu	<i>genero ikuspuntua barneratu gizarte antolaketa erantzunkidearen irizpidea jarraituz</i>	Ekintza E.3.1.2.: Hiri Debekatuaren Mapa proiektua diseinatu eta martxan jarri hirigintza sailak hartzen dituen erabakietan genero ikuspegia barneratu ahal izateko
		Ekintza E.3.1.3.: Herri Ola gogoeta prozesuaren baitan Oinez proiektuaren inguruan burutuko diren kafe tertulietan genero ikuspegia barneratu
	<i>Helburu zehatza E.3.2.: Kanpo mugikortasunari dagokionez herriko emakume eta gizonen egoera, behar, nahi eta jomugak kontutan hartu esparru honetan herritarrek, eta zehazki emakumeek, dituzten zailtasunei erantzun bat eman ahal izateko</i>	Ekintza E.3.2.1.: Garraio publikoa, eta zehazki Durango-Gazteiz autobus linea, hobetzeko Udalak martxan jarri duen egitasmoaren jarraipen hestua egin, 2013an linea honen inguruko kontzesioa amaierak eskaini ditzakeen aukerak bultzatzeko asmoarekin
		Ekintza E.3.2.2.: Udaletxeak lantzen ari den garraioaren ordenantzan genero ikuspegia barneratzen dela bermatu
		Ekintza E.3.2.3.: Garraio kolektiboa bultzatzen duten esperientzien inguruko informazioa jaso Otxandioko emakume eta gizonen beharretara egokituriko ekintza bat martxan jartzeko

III. Kapitulua

Emakumeen aurkako indarkeria

Emakumeen aurkako indarkeria azken urteotan agenda politiko eta sozialean barneratzea lortu da errealitate honekin amaitzeko egin den lanari esker. Zentzu honetan, mugimendu feministaren borroka aipagarria da, borroka honek indarkeria matxistaren kausak, adierazpenak eta ondorioak aztertzea ahalbidetu baitu. Era berean, indarkeria hori pairatzen duten emakumeak indarkeria horretatik askatzeko esku hartzeko ereduak proposatu ditu.

Indarkeria matxistari buruz ari garenean, gizarte heteropatriarkalaren oinarri diren botere harreman desorekatuen ondorioz sortutako errealitateei buruz ari gara. Zentzu honetan, indarkeria matxista emakumeek batez ere jasaten badute ere, sistema heteropatriarkalak gizon eta emakumei ezartzen dizkien eredu hegemonikoak hausten dituzten pertsonak ere jasaten dute. Zentzu honetan, sexualitate normatibotik kanpo dauden herritarrek (transexualak, lesbianak, gay edo bisexualak) indarkeria matxistaren erasoak bizi ditzaketela ulertzen da.

Gaur egungo gizartean indarkeria matxistak era desberdinak hartu ditzake. Hauen artean indarkeria zuzena bezala ezagutzen dena da nabariena. Indarkeria hau pertsona batek beste bati nahita eragindakoa litzateke eta fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa izan daiteke. Indarkeria honen adierazpen gogorrenek heriotza ekar dezakete, adibidez, erasotzaileak erahilda, gaixotasun egoeren larriagotzeagatik e.a. Gaur egun indarkeria honen inguruko datu ofizialek bikotekideek edo bikotekide ohiek eraildako emakumei buruzko estatistikak eskaintzen dituzte. Ala ere, indarkeria zuzenak hartu ditzakeen beste formen inguruko datuak eskuratzea zailagoa da. Hala nola, indarkeria matxista pairatzen ari diren eta bere buruaz beste egitea erabakitzen duten emakumeak edo sexu-erasoak jasan dituztenak e.a. Horregatik oraindik zaila da indarkeria zuzenak dituen eragin guztiak baloratzea.

Bestalde, zeharkako indarkeriak ditugu: indarkeria estrukturala eta indarkeria sinbolikoa. Indarkeria estrukturala gizartearen egituraketaren ondorioz sortutako bazterkeria eta bidegabetasun egoeretan islatzen da. Indarkeria honen adibide nabari bat gaur egun mundu mailan ezagutzen den pobreziaren feminizazioan aurkitzen dugu.

Azkenik indarkeria kulturala edo sinbolikoa legoke. Indarkeri honek beste indarkeriak justifikatu, zilegitu eta ahalbidetzen ditu, herritarrok bidezkoak, ezinbestekoak edo/eta beharrezkoak bailira barnera ditzagun laguntzen baitu.

Indarkeria forma guzti hauen arteko harremana etengabekoa da, harreman honen bidez indartzen direlarik. Ikuspuntu honetatik gizarte heteropatriarkala aztertzerakoan, gizarte eredu honen oinarrian indarkeri guzti hauen arteko etengabeko erlazioak ardatz nagusi bat osatzen duela ondorioztatu daiteke. Zentzu honetan, gizarte heteropatriarkala indarkeria eragiten duen gizarte eredu bat bezala deskribatzen da.

Indarkeria matxistaren aurkako aurrera pausoak eman badira ere, errealitateak erakusten digu oraindik lan asko egin beharra dagoela. Gainera, bizitzen ari garen krisi ekonomikoaren areagotzeak indarkeria matxistak sortzen dituen egoerengan izan ditzakeen ondorioak aztertzea garrantzitsua da. Zentzu honetan, Botere Judizialaren 2011ko Etxeko eta Genero Indarkeriari buruzko urteko txostenak adierazten duen bezala, “arrazoi ekonomikoak direla eta egindako tratu txarren kasuak ugartu egin

dira, eta biktimek eraso horiek jasaten dituzten denbora luzatzen da, emakumeak salatu eta gero eurentzat eta seme-alabentzat laguntzarik ez aurkitzeko beldur direlako”

Helburu Orokorra I.1.: Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten herriko emakumeei zuzenduriko arreta eta esku-hartze zerbitzuak bermatzea

Helburu zehatza I.1.1.: Indarkeria matxista kasuen aurrean dauden arreta eta esku-hartze zerbitzuak aztertu eta baloratu Otxandio bezalako herri batean indarkeri egoerei aurre egin behar dioten emakumeen egoera eta beharrak identifikatzeko asmoarekin

Arreta eta esku-hartze zerbitzuak

Otxandio bezalako herri txiki batean, beste herri txiki askotan gertatzen den bezala, indarkeria matxistaren inguruko kasuak identifikatzea zaila da. Askotan kasu hauek egoera larrietara iristen direnean bakarrik identifikatzen dira eta, beraz, egoera horietara iritsi ez daitezen beharrezkoa den esku-hartzea zaila izaten da.

Gainera, lehen aipatu den bezala, arreta eta esku-hartze zerbitzu gehienak Otxandiotik kanpo daude: laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren gizarte zerbitzuetatik kudeatzen dira eta, beraz, Durangon kokaturik daude eta Bizkaiko Foru Aldunditik kudeatzen diren zerbitzu gehienak Bilbon aurkitzen dira. Esan bezala, osasun zerbitzu gehienak (heldu eta nagusien oinarritzko arreta izan ezik) Araban (Legutio eta Gasteizen) aurkitzen dira eta denuntzia bat egin ahal izateko Durangora edo Gasteizera joan beharra dago. Udalaren Gizarte Zerbitzuak Udaletxean bertan aurkitzen badira ere astean behin daude zabalik.

Kanpo mugikortasunaren inguruan lehen aipatu diren arazoei indarkeria egoera bat bizi duen emakume bati kanpo mugikortasun honek suposatu diezaiokeena gehitzen badiegu, arreta eta esku-hartze zerbitzuak eskuratzeko herriko emakume batek izan ditzakeen zailtasunak kontsideragarriak izan daitezke.

Bestalde, zerbitzuen banaketa honek inplikatuak dauden erakundeen arteko koordinazioa oztopatzeaz gain herritar eta arduradun politikoen zerbitzu hauen inguruko ezagutza maila ere zaildu dezake. Egoera honi aurre egiteko, Giza Eskubideen buru den zinegotzia Berdinebidean Bizkaiak genero indarkeria jasaten duten emakumeei zuzenduriko arreta eta esku-hartze zerbitzuen inguruan antolatu duen prestakuntza saioan parte hartzea proposatzen da.

Illo honetatik jarraituz, udal zinegotzi eta langileei – eta parte hartu nahi duten herritarrei – zuzenduriko lan saio bat antolatzea proposatu da. Lan saio honetan, herri txikietako emakumeek bizi ditzaketen zailtasun eta oztopoak kontutan izanda, indarkeria matxistari aurre egin behar dioten herriko emakumeek eskuratu ditzaketen arreta eta esku-hartze zerbitzuak aztertuko eta baloratuko dira.

Ekintza I.1.1.1.: Udal zinegotzi eta langileei – eta parte hartu nahi duten herritarrei – indarkeri egoerak bizi dituzten herriko emakumeek eskura ditzaketen arreta eta esku-hartze zerbitzuak aztertze lan saio bat burutu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea eta Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Batzorde guztiak eta udal langileak			
Aurrekontua	200€			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

G.1.3.1. ekintza (Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren herritarren inguruko informazioa jasotzeko lan tresna bat diseinatu eta kudeatu) eta G.1.1.3. ekintzek (Alkatea eta Gizarte Langilearen arteko bi hilean behineko koordinazio batzarrak burutu) Udal Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren indarkeria matxista bizi duten emakumeen egoeraren inguruko informazioa izatea erraztuko du, besteak beste. Honek, zerbitzu hauek Otxandioko emakumeek eskuratzeko dituzten arazoak identifikatzea ahalbidetuko du. Era berean, zerbitzu hauek herriko emakumeen beharretara egokitzen diren ala ez baloratzea erraztuko du. Hurrengo pausoa, indarkeria matxistari aurre egin behar dioten herriko emakumeei zuzenduriko arreta eta esku-hartze zerbitzuak bermatzeko helburuarekin, lan ildoak eta proposamenak adostea izango da. Era berean, eta lan ildo eta proposamen hauek landu ahal izateko, arlo honetan eskumenak dituen eta inplikatuak dauden erakundeekin lan dinamikak definitu eta sendotu beharko dira.

Ekintza I.1.1.2.: Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren indarkeria egoerak bizi dituzten emakumeen egoera eta beharren jarraipen bat egin arreta eta esku-hartze zerbitzuen inguruan lan ildoak eta proposamenak adostu ahal izateko

Arduradunak	Alkatea, Giza Eskubideen Batzordea eta Zerbitzu, Kirol, Hezkuntza, Osasun eta Ongizate Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Gizarte Langilea			
Aurrekontua	Ez da kostu gehigarririk aurreikusten			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu Orokorra I.2.: Herri mailan indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatu

Helburu zehatza I.2.1.: Sexismorik gabeko festak bultzatu

Sexismoa festetan

Sexismoa festetan eta jai giroan era desberdinetan eman daiteke. Eraso sexual zuzen eta identifikagarriez gain, askotan normalizat edo erasotzat kontsideratzen ez diren portaera sexistak jai eta festa giroan areagotu egiten dira. Adibidez, jazarpen sexualak gutxietsi egiten dira maiz festa giroan eta baimenik gabeko ukitzeak, kutxu sexista duten irainak eta mehatxuak, eta beldurra eragitea eta botere harreman bat inposatzea helburutzat duten jarrerak oharkabean pasa daitezke.

Sexismorik gabeko festak eta jai giroa bultzatzeko helburuarekin hainbat ekimen martxan jarri dira Euskal Herriko herrietan. Beraz, esperientzia hauen inguruko informazioa jaso ondoren, Otxandioko errealitatera egokiturik egongo den ekimen bat diseinatzea proposatzen da. Honetarako funtsezkoa da jai batzordean dauden herritarren inplikazioa lortzea baita herriko neska eta mutil gazteen inplikazioa ere. Zentzu honetan, Gazte Asanbladak joka dezakeen papera garrantzitsua izan daiteke herriko gazteei dagokionez eragile nabaria baita.

Ekimen honetan A.3.1.2. ekintza (jaietan sexualitate aukera desberdinen askapenerako sentsibilizazio ekintzak burutu) barneratuko litzateke, lehen aipatu den bezala eraso sexistak emakumeez gain eredu heteropatriarkaetik kanpo daudenei zuzenduta baitaude.

Ekintza I.2.1.1.: Sexismorik gabeko festak bultzatzeko ekimen bat diseinatu eta martxan jarri

Arduradunak	Kultura Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Festa Batzordea eta Gazte Asanblada			
Aurrekontua	1.500 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburu zehatza I.2.2.: Herri mailan indarkeria matxistari aurre egiten dizkioten jarrerak bultzatu

Beldur Barik ekimena

Gazteen jabeakuntza prozesuak indartzeko eta indarkeria sexistaren kontra lan egiteko Beldur Barik ekimena martxan jarri zen orain dela hiru urte Berdinsarea osatzen duten berdintasunaren aldeko teknikarien eskutik. Ekimen honen

barruan hainbat ekintza antolatzen dira: gazteei zuzenduriko lehiaketa, topaketak, hezkuntza ekimenak, herri ekimenak e.a. Ekintza hauen bitartez hausnarketarako prozesu parte-hartzaileak bultzatu dira, hauetan gazteen inplikazio aktiboa sustatzen delarik. Otxandioko gazteentzat esparru hauetan parte-hartzea aukera bat izan daiteke eraso sexisten inguruko bizipenak eta hauei aurre egiteko estrategiak partekatu ahal izateko.

Ekintza I.2.2.1.: Beldur Barik ekimena herriko gazteen artean bultzatu

Arduradunak	Kultura Batzordea eta Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Herriko gazteak			
Aurrekontua	1.000 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Autodefentsa ikastaroak

Prozesu parte-hartzailean eztabaidatu den gai bat autodefentsa ikastaroak izan dira. Emakume batzuk herri mailan ikastaro bat burutzea interesgarria izango zela baloratu badute ere, beste batzuk ikastaro hauekin ditugun baino beldur gehiago sortzeko arriskua mahai gainean jarri dute. Zentzu honetan – eta emakumeek ditugun beldurrak, eraso sexistak jasotzeko bizi ditugun arriskuak eta, dagoeneko, egunerokotasunean bizi ditugun erasoak kontutan harturik – hauek aztertzea eta hauen aurrean emakumeak jabetzea eta ahalduntzea helburu izango duen autodefentsa lan saioak burutzea planteatu da. Ildo honetatik jarraituz, adin tartearen arabera emakume eta neska gazteek bizi ditugun errealitatera egokituriko ikastaroak burutzea proposatu da.

Ekintza I.2.2.2.: Emakumeen ahalduntzea eta jabetasuna helburu izango duten eta adin tarte desberdinetara egokituriko autodefentsa ikastaroak burutu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Herriko talde eragileak			
Aurrekontua	1.500 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Azaroak 25 – Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Herritarren artean indarkeria sexistaren kontrako sentsibilizazio maila bultzatzeko Udalak urtero azaroak 25eko – emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna – kanpaina bultzatzen du. Udalaren indarkeria sexistaren kontrako konpromisoa adierazteko urtero indarkeriaren kontrako deklarazio instituzionala udalbatzarrean onartzen da. Era berean, herritarrei zuzenduriko sentsibilizaziorako ekintzak antolatzen dira. A.2.1.6. ekintzan azaltzen den bezala 2013ko azaroak 25eko kanpainaren barnean gai hau lantzen duen antzerki emanaldi bat aurreikusten da.

Esparru honetan Udalak izan duen ibilbidea jarraituz, eta hau sendotzeko asmoarekin, azaroak 25eko kanpainarekin jarraitzea eta hau indartzea proposatzen da.

Ekintza I.2.2.3.: Azaroak 25eko kanpainaren antolaketarekin jarraitu eta kanpaina hau indartu

Arduradunak	Giza Eskubideen Batzordea			
Inplikatuak	Batzorde guztiak			
Aurrekontua	1.000 €			
Kronograma	2013	2014	2015	2016

Helburuen matrizea

Helburu Orokorra I.1.: Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten herriko emakumeei zuzenduriko arreta eta esku-hartze zerbitzuak bermatzea	<i>Helburu zehatza I.1.1.: Indarkeria matxista kasuen aurrean dauden arreta eta esku- hartze zerbitzuak aztertu eta baloratu Otxandio bezalako herri batean indarkeri egoerei aurre egin behar dioten emakumeen egoera eta beharrak identifikatzeko asmoarekin</i>	Ekintza I.1.1.1.: Udal zinegotzi eta langileei – eta parte hartu nahi duten herritarrei – indarkeri egoerak bizi dituzten herriko emakumeek eskura ditzaketen arreta eta esku-hartze zerbitzuak aztertzeko lan saio bat burutu Ekintza I.1.1.2.: Gizarte Zerbitzuetara zuzentzen diren indarkeria egoerak bizi dituzten emakumeen egoera eta beharren jarraipen bat egin arreta eta esku-hartze zerbitzuen inguruan lan ildoak eta proposamenak adostu ahal izateko
Helburu Orokorra I.2.: Herri mailan indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatu	<i>Helburu zehatza I.2.1.: Sexismorik gabeko festak bultzatu</i> <i>Helburu zehatza I.2.2.: Herri mailan indarkeria matxistari aurre egiten dizkioten jarrerak bultzatu</i>	Ekintza I.2.2.1.: Sexismorik gabeko festak bultzatzeko ekimen bat diseinatu eta martxan jarri Ekintza I.2.2.1.: Beldur Barik ekimena herriko gazteen artean bultzatu Ekintza I.2.2.2.: Emakumeen ahalduntzea eta jabekuntza helburu izango duten eta adin tarte desberdinetara egokituriko autodefentsa ikastaroak burutu Ekintza I.2.2.3.: Azaroak 25eko kanpainaren antolaketarekin jarraitu eta kanpaina hau indartu

IV. Kapitulu

Kudeaketa eredu

Jarraipenerako fitxak

Kudeaketa eredua

Berdintasunerako Udal Planaren kudeaketa eredua adosterako orduan hartu diren erabakiak Otxandio bezalako Udaletxe txiki baten errealitatera egokitu dira. Hau da, udalak eskaintzen dituen aukerak baloratu ondoren kudeaketa eredu errealista eta eraginkor baten aldeko apustua egin da. Zentzu honetan, lan egitura berriak sortzea baino, dauden egituren lan dinamikak eta lanerako kultura berdintasunerako politikak udal mailan bultzatzeko beharrezkoak diren baldintzetara egokitzea adostu da.

Bestalde, kudeaketa eredua adosterakoan Udala osatzen duten Batzorde eta sail guztien inplikazioa eta arduren banaketa bultzatu nahi izan da, genero berdintasunerako Udal politikak Batzorde guztien adura izan daitezen. Era berean, herritarren parte-hartzea sustatuko duen kudeaketa eredu bat definitu da. Helburu hau lortzeko, berdintasunerako Udal politiken garapenean herritarren erabakiak barneratzeko aukera eskaintzen duen lan egitura eta dinamikak adostu dira.

Azkenik, gender mainstreaming estrategia udal mailan garatzea lagunduko duen kudeaketa eredu bat proposatu da. Zentzu honetan, generoan oinarritutako bazterketa egoeren kausak desagerraraziko dituen politikak garatzeko beharrezkoa den talde lana eta jardura integratua eta sistematikoa finkatzea lortu nahi da kudeaketa eredu honekin.

Planaren kudeaketarako lan egiturak

Planaren inplementazioa eta jarraipena burutu ahal izateko ezinbestekoa da lan dinamika finkoak sortzea. Hau lortzeko helburuarekin, eta Udalean dauden lan egitura eta dinamikak kontutan harturik, berdintasunerako politiken sustapenerako eta koordinaziorako ondorengo proposamena adostua da:

Giza Eskubideen Batzordea: aipatu den bezala, Berdintasunerako Udal politiken – eta beraz I. Planaren – kudeaketaren gidaritzaren ardura dagokio. Laburbilduz, Batzorde honi dagozkion eginkizunak honako hauek dira:

- Berdintasunaren alorrean, eta zehazki Planean bildutako helburuak gauzatzeko, proposamenak eta plangintzak diseinatzea eta sustatzea.
- Berdintasunaren alorrean, eta zehazki Planean adostutako helburuak gauzatzeko, burutzen diren ekintzen eta proiektuen jarraipena eta ebaluazioa koordinatu.
- Berdintasunerako udal politiken garapenean herritarren parte-hartzea bultzatzeko helburuarekin sortutako lan dinamikaren eta talde eragilearen iraunkortasuna bultzatu. Era berean, lan esparru honetan herritarren eta Udalaren arteko harremanen koordinazioa burutu.
- Udal mailan, berdintasunerako politiken garapenerako beharrezkoa den sailen arteko koordinazioa bultzatu eta honen jarraipena egin.
- Berdintasunerako politiken garapenerako lanean dauden beste erakundeekin lankidetzarako eta koordinaziorako bideak ezarri.

Partaideak: Giza Eskubideen Batzordearen lehendakaria den zinegotzia, Giza Eskubideen Batzordearen eta Kultura Batzordearen kidea de zinegotzia eta Giza Eskubideen Batzordeak koordinatzen duen lan taldea.

Maila politikoan, berdintasunerako politiken sustapenerako koordinazio egitura: Bigarren kapituluan azaldu den bezala, udalaren baliabide eta aukerak kontutan harturik, egitura berri bat eratzea baino finkatua dagoen koordinazio egitura moldatzea erabaki da. Hau da, astelehen arratsaldeetan zinegotzi guztiak – baita idazkaria eta arkitektoa ere – batzen dituen sailen arteko koordinazio egituraren berdintasunerako udal politiken kudeaketa txertatu. Zentzu honetan, berdintasunerako politiken kudeaketari dagokionez egitura honen eginkizunak honako hauek izango dira:

- Berdintasunerako I. Udal Plana abiapuntutzat harturik urteko plangintza operatiboa adostu.
- Urteko plangintza operatiboaren jarraipena eta ebaluazioa egin.
- Genero ikuspegia Batzordeek kudeatzen dituzten proiektu eta politiketan txertatzeko dauden zailtasunak eta ematen ari diren aurrera pausoak eztabaidatu. Hau kontutan harturik, prestakuntzarako beharrak identifikatu eta, honen arabera, prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatu.
- Sail bakoitzak, bere lan esparruari dagokionez, generoan oinarrituta herri mailan identifikatu diren bazterketa egoeren inguruko informazioa partekatzea eta eztabaidatzea. Era berean, egoera hauei aurre egiteko neurriak adostu eta urteko plangintza operatiboan barneratu.
- Herri Ola prozesuan sail bakoitzak lantzen dituen lan esparruetan genero ikuspegia barneratzeko proposamenak adostu eta hauen jarraipena burutu.

Partaideak: Udal zinegotzi guztiak, idazkaria eta arkitektoa.

Maila teknikoan, berdintasunerako politiken sustapenerako koordinazio egitura: kasu honetan finkatuak dauden egitura eta lan dinamikak erabiliko dira baita ere. Dena den, beharrezkoa kontsideratu denean lan dinamika berriak proposatu dira. Beraz, alde batetik, astero alkateak langileekin burutzen duen koordinaziorako batzarrean berdintasunerako udal politiken kudeaketa txertatzea adostu da. Zentzu honetan, berdintasunerako udal politiken kudeaketari dagokionez, ondorengo hauek izango dira koordinazio egitura honen eginkizunak:

- Urteko plan operatiborako proposamenak planteatu.
- Urteko plan operatiboak barneratzen dituen neurriak martxan jartzeko burutu beharreko lana baloratu.
- Genero ikuspegia eguneroko lanean barneratzeko dauden zailtasunak eta aurrera pausoak aztertu. Honen arabera prestakuntzarako beharrak identifikatu eta proposamenak planteatu.
- Bakoitzak bere lan esparruari dagokionez, generoan oinarrituta identifikatu diren bazterkeria egoeren berri ematea. Eta hauei aurre egiteko proposamenak planteatzea.
- Berdintasunerako politiken garapenerako beharrezkoa den maila tekniko eta politikoaren arteko koordinazioa bultzatu.

Partaideak: Udal langileak – Gizarte Langilea izan ezik – eta Alkatea.

Bestalde, G.1.1.3. ekintzan azaltzen den bezala, **Alkate eta Gizarte Langilearen arteko bi hilean behineko koordinazio batzarrak proposatzen da**. Koordinazio egitura honen eginkizunak ondorengo hauek izango dira:

- Genero ikuspegia kontutan harturik, gizarte zerbitzuetara zuzentzen diren herritarren egoeraren inguruko informazioa jazozea eta baloratzea.
- Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden herritarren, eta zehazki emakumeen, egoeraren inguruko Udalak duen informazioa sakontzea eta aztertzea.
- Pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden herritarren, eta zehazki emakumeen, egoera hobetzeko neurriak aztertzea eta baloratzea.
- Indarkeria matxista bizi duten, eta Gizarte Zerbitzuetara zuzendu diren, emakumeen inguruko informazioa jasotzea eta aztertzea.
- Indarkeria matxista kasuen aurrean dauden arreta eta esku-hartze zerbitzuak aztertu, indarkeri egoerei aurre egin behar dioten herriko emakumeen egora hobetzeko neurriak proposatu eta baloratzeko.
- Berdintasunerako politiken garapenerako beharrezkoa den maila tekniko eta politikoaren arteko koordinazioa bermatu.

Partaideak: Alkatea eta Gizarte Langilea.

Herritarren parte-hartzea bultzatuko duen lan egitura: Hirugarren kapituluaz azaldu den bezala, Berdintasunerako Udal Planaren diseinurako martxan jarri den prozesu parte-hartzaileri jarraipena emango zaio Herri Ola gogoeta prozesuaren baitan burutuko den kafe tertulian. Foro honetan berdintasunerako Udal politiken plangintzan, eta Herri Ola prozesuan genero berdintasuna barneratzerakoan, herritarren parte hartzea ahalbidetuko duen talde eragilea eratu eta talde honek izango dituen eginkizunak eta lan dinamikak adosten joango dira. Beraz, egitura honen ezaugarri eta eginkizunak Foroan parte hartuko duten emakumeekin batera definitzen joango dira.

Planaren kudeaketaren faseak:

Urteko plan
operatiboak
adostu

Esan bezala, behin Berdintasunerako I. Udal Plana onartu ondoren, urte hasieran Urteko Plan Operatiboak adostuko dira. Plan hauek astero zinegotzi guztiak batzen dituen koordinazio egituran onartuko dira. Plangintza honetan urtean zehar lortu nahi diren helburuak eta hauek gauzatzeko martxan jarriko diren neurriak adostuko dira. Era berean, Batzorde bakoitzak bere lan esparruari dagokionez hartuko dituen ardurak eta burutuko dituen proiektu eta ekintzat zehaztuko dira.

Urteroko plangintza adosterakoan udal langileen eta herriko talde eragileen proposamenak barneratuko dira. Udal langileen proposamenei dagokionez, maila tekniko eta politikoaren arteko koordinazioaren ardura duten egiturek ahalbidetuko dute proposamen hauek plangintzan barneratzea. Herritarren parte hartzeari dagokionez, alde batetik, Udal Batzordeek koordinatzen dituzten lan taldeetatik egindako proposamenak egongo lirake. Proposamen hauek urteko plangintzan barneratzeko ardura Batzordeetako zinegotzien esku egongo da. Bestalde, aipatu berri den talde eragileak egindako proposamenak talde hau osatzerakoan adostuko diren lan dinamika eta eginkizunen arabera bideratuko dira.

Urteko
plangintzaren
jarraipena

Urteko plangintzaren jarraipenerako sistema antzekoa izango da: Zinegotzi guztiak batzen dituen koordinazio egituran burutuko da. Kasu honetan ere, langileen eta herritarren ekarpenak barneratuko dira honetarako definitu diren koordinazio eta lan dinamiken bidez. Beharren eta lehentasunen arabera jarraipen hau lantzeko uneak adostu arren, urtearen erdialdeak jarraipen orokor bat burutuko da. Lehen aipatu de bezala, urteko plangintzaren onarpenaren eta honen jarraipenaren gidaritza Giza Eskubideen Batzordearen esku egon arren, Batzorde bakoitzari dagokio bere lan esparruaren barnean berdintasunerako udal plangintzari dagokionez burutzen diren proiektu eta politiken jarraipena burutzea.

Ebaluazioa

Azkenik ebaluazio fasea legoke. Hau urte amaieran burutuko da eta aurreko faseen eredu bera jarraituko du: zinegotzi guztiak astero batzen dituen egituran burutuko da, langileen eta herritarren ekarpenak eta proposamenak barneratuko dira eta Batzorde bakoitzak bere lan esparruari dagozkion proiektu eta politiken ardura izango du.

Ebaluazioaren azken helburua, Plana behar bezala gauzatzeko elementu guztien funtzionamendu ona ziurtatzea izango da. Zentzu honetan, elementu guzti hauen berrikusketa burutuko da: planaren kudeaketa egituren eta eredu beraren berrikusketa, urteko plangintzaren arabera Batzorde bakoitzean burutu diren ekintza eta proiektuen jarraipena, barne prestakuntzaren inguruko balorazioa, ezarritako helburuen lorpen mailaren aurkezpena, genero ikuspuntu batetik errealitatearen ezagutza sakontzeko beharra, sortu diren behar eta oztopoen azterketa eta emandako aurrera pausoen analisia burutuko da. Ebaluazioaren emaitzak kontutan harturik hurrengo urteko plangintzarako hobekuntzak, proposamenak eta lehentasunak adostuko dira.

Jarraipena eta ebaluaziorako lagungarri izango diren fitxak erabiliko dira. Hauetan helburuen lorpen maila baloratzeko adostutako adierazleak barneratzeaz gain, identifikatu diren zailtasunak eta hauen aurrean hartutako neurriak deskribatuko dira.



EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

Helburu Orokorra G. 1.: Genero Mainstreaming estrategia udal politiketan barneratzeko behar diren baldintzak bermatzen hastea.

Helburu zehatza G.1.1.: Berdintasunerako politikak garatzeko beharrezkoak diren lan eta koordinazio egiturak ezarri.

Ekintza G.1.1.1.: Batzordeen arteko koordinazio batzarren agendan berdintasunerako udal politiken kudeaketa eta koordinazioa barneratu

Arduradunak	Batzorde guztiak		
Inplikatuak	Batzorde guztiak		
Adierazleak	- Zenbatetan barneratu da berdintasunerako Udal politiken plangintza Batzordeen arteko koordinazio batzarren gai ordenean. - Batzorde desberdinen inplikazio maila Udal berdintasunerako politiken plangintzan eta garapenean. - Batzorde desberdinetatik berdintasunerako politiken garapenerako identifikatu diren zailtasunen aurrean martxan jarri diren neurrien kopurua. - Generoan oinarrituta identifikatu diren bazterketa egoeren aurrean adostutako neurrien kopurua.		
Egiaztapen iturriak	Batzarren gai ordenak eta aktak.		
Ekintzaren maila betetze	Osoa	Zatika	Ezer ez
Ekintza identifikatu burutzeko diren			

zailtasunak	
Zailtasunen aurrean hartutako erabakiak	

